




AZKEN EMAKUME MEATZARIA

Fernando Pedro Pérez



AZKEN EMAKUME MEATZARIA



Egilea: Fernando Pedro Pérez.

Argitaratzailea: Arrain Editoriala

Lehen argitaldia: 2011eko abendua.

ISBN: 978-84-92401-96-3. **Legez- gordailua:** BI-2217-2011.



PRÓLOGO

Angeles Las Carrerasesko Abantoarra auzoan bizi den meatzaria da. Ehun urte dituela, bere bizitza meategian nolakoa izan den gogoratzen du. Bere ilobak Angelesi esaten dio meatzariren bat ezagutu nahi duela meatzaritzaren xehetasun guztiak ezagutzeko. Gaur, jarduera honi buruz geratzen den gauza bakarra oroitzapenak dira.



Angeles Garcia Sainz
Ehun urte ditu eta Biz-
kaiko azken emakume
meatzaria da. Abantoko
Las Carreras auzoko Gure
Etxea deitutako etxebizitza-
blokean aurkitzen zen, bere
alaba eta suinarekin batera, Maria del Carmen eta Jose,
hurrenez hurren. Erretiroa hartu zuenetik eta bere bi ala-
bak aurrera eramaten lortu zuenetik, bere bizitzako garai-
rik hoberena bizitzen ari zen. Angeles alargun gelditu zen
ezkondu eta bost urte geroago. Bere bizitza lan gogor eta



Piedad y Victoriano.

etengabez marka-
turik egon da.

Denbora gelditu
dela dirudi. "San
Pedrok" ahaztuta
zuen; edo agian
ez, agian bere
familiaz disfrutatu
ahal izateko den-
bora gehiago
eman dio Angele-
si, gaztea zenean
familiaz disfrutatu
ezin izan zuelako.
Bere familia aurre-
ra eramateko asko
borrokatu behar
izan du Angele-
sek. Familia bere

6

Volio. Red

ACTA DE NACIMIENTO 9801 /09

MINISTERIO DE JUSTICIA
NÚMERO Red
REGISTRO CIVIL

Angeles
Garcia
Sainz

En Abanto y B. de provincia de Gandía
a las quince horas del día veinte
de enero de mil novecientos veinte, ante
D. Agustín Juez municipal, y D. Victoriano Secretario, compareció Victoriano
Garcia Sainz natural de este
País provincia de Valencia
de edad veintiocho años
de estado casado su profesión carretero
domiciliado en la Barriada de las Carreras
según acredita con su cédula personal, expedida.

Que se lea y se inscriba en el Registro civil una vez que y al
efecto, como padre de la misma, declaro:
Que dicha niña nació en su domicilio
a las de horas de
las veinte horas

Que se lea y se inscriba en el Registro civil una vez que y al
efecto, como padre de la misma, declaro:
Que dicha niña nació en su domicilio
a las de horas de
las veinte horas

Que se lea y se inscriba en el Registro civil una vez que y al
efecto, como padre de la misma, declaro:
Que dicha niña nació en su domicilio
a las de horas de
las veinte horas

(1) Probado, edad, etc.



bizitzako benetazko motorra izan da; bi alabekin hasi zen
familia denborarekin handiagotzen joan zen.

Azken emakume meatzariaren bizitza ez da emakume lan-
gile baten adibide soila izan; herri osoaren errespetua eta
mirespena jaso du izan zuen erantzukizunagatik eta bere bi
alabei emandako maitasunagatik. Horrek indar handiak
eman zizkion bere bizitza aurrera eramateko: bizitza osoan
ez zuen denbora librerik izan, oporrik gabe egon zen eta
egunero lan egin behar zuen.

Angeles Garcia 1910ean jaio zen eta nahiz eta bere jaiotza-agirian uztailaren 27an jaio zela agertu, uztailaren 26an jaio zen, Revillan, Abanto Zierbanako Las Carreras auzoan.

Bigarren abizena baita ere txarto jarri zioten jaiotza-agirian. Bere abizena Sainz de la Maza da eta ez Saez, bertan jartzen zuen moduan. Ikusten denez, erregistro zibileko funtzionarioak ez zuen egun ona.

Bere aita meatzaria izan zen baita ere. Victoriano Garcia zuen izena. Bere ama, Piedad Sainz de la Maza, emakume zoragarria izan zen, betidanik bere umeei begira egon zen.

8

Angelesek bi neba izan zituen, Angel eta Valentin. Biak gazte hil ziren eta ez zituen ezagutu. Horrez gain, beste bos ahizpa izan zituen. Horietako bat jaio bezain laster hil zen eta besteak, Consuelo, Milagros, Socorro eta Basilisa deitzen ziren. Egun Basilisak bizirik jarraitzen du, 90 urte ditu eta Las Carreras auzoan bizi da baita ere.



Bost urte zituenean, amak Angelines Las Carrerareko eskolara bidali zuen. Bertan hamahiru urte bete zituen arte egon zen. Urte haietan, ikasteaz gain, bere ahizpak eta gurasoek zituzten behiak zaindu behar zituen. Bere aita, Victo-



9

riano, ez zuen inoiz begi onekin ikusi Angelesek eskolara joan izana eta bere emazteari, Piedad, esan ohi zion umea eskolatik ateratzea. Baina Angelesen amak esaten zion eskolan sartzea eman ahal zion guztia zela eta bertan gertatu zen.

Angeles ez zen ikasle ona. Ez zitzaion gustatzen eskolara joatea eta ikasteko beharra. Hala ere, Amalia deitzen zen irakaslea gogoratzen du, asko irakatsi zion irakaslea izan baitzen.

Eskola utzi zuenean, Angeles Erandioko baserri batera joan zen lan egitera.

Garai horretan Emiliana deitzen zen lagun bat zuen eta Martuzarre deitutako Erandioko baserri batean lan egiten ari zen. Horregatik Angelesek bere amari baserrian lan egin nahi zuela esaten zion maiz. Amaren erantzuna argia zen, esko-



lan mantendu ahal izanez gero, ez zen inora lan egitera joango.

Azkenean, hamahiru urte zituenean, Angeles Martiartu izena zuen Erandioko baserriera joan zen lan egitera. Baserri hau Emilianan lanean ari zen baserritik hurbil zegoen.

Baserri horretan hainbat urtez lan egiten egon zen, hogeita hamar urte bete zituen arte, hain zuzen ere. Baserri horretan bizi zen bikoteak lan-

gile bikaina zela uste zuen eta Angeles asko maite zuten.

Zerbitzari moduan egindako lana oso gogorra izan zen. Abereak zaintzen zituen eta etxeko lanak egiten zituen. Garai zailak ziren eta asko lan egin behar zen.

Hogeita hamar urte bete



Luis Basail.



baino lehen, bere amak etxera bueltatzea eskatu zion, bere laguntza behar zutelako. Beraz, Revilla auzora bueltatu zen eta bertan Luis Basail Ranero ezagutu zuen, bere senarra izango zen gizona, alegia. Luis Murrieta auzoan bizi zen, Revilla auzotik hurbil.

Luis egunero Angelesen etxetik pasatzen zen, lanerako bidean baitzegoen. Angeles baita ere egunero Revillatik Las Carrerasera joaten zen esnea saltzera, erosketak egitera (zaldalea, ogia...) eta mezara. Askotan Luisekin topatzen zen. Modu honetan, bere adiskidetasuna gero eta sendoago bilakatu zen. Bi urte geroago, Las Carrerako San Pedro parrokian ezkontzea erabaki zuten. 1942. urtea zen. Angelesek 32 urte zituen eta Luisek aldiz, 35 urte.

Ezkundu eta hurrengo egunean, bikoteak lan egin behar zuen. Luis etxeko ortuan lan egiten zuen eta Angelesek etxeko lanak egiten zituen eta behia zaintzen zuen.

Apenas bost urte igaro ziren eta zoritxarrez, Luisek tuberkulosia hartu zuen eta hil zen. Angeles alargun geratu zen haur-

dun zegoela eta beste alaba bat zuela. Alaba Maria del Carmen izena zuen eta 1946. urteko uztailaren 28an jaio zen. Luisen heriotza 1947ko azaroaren 8an izan zen eta haien bigarren alaba urte horretako abenduaren 23an jaio zen. Angelesek Maria Luisa izena jarri zion.

Angelesek eta Luisek baita ere seme bat izan zuten, baina hiru hilabete zituenean medikuaren arduragabekeriagatik hil zen. Apendiziko ebakuntza egin behar zioten eta medikuak ebakuntza atzeratzeagatik hil zen umetxo.

Luisen familiak tuberkulosia jasan zuen eta bere anaiak horregatik hil ziren. Maria del Carmenek, bere alabak, tuberkulosia hartu zuen baita ere eta, nahiz eta hiltzeko arrisku handia izan, zorionez, sendatu zen.

Azken emakume meatzariak dituen oroitzapenik hobere-nak Luisen alboan igarotako garaioak dira. Dituen oroitzapen guztiak onak dira. Angelesen bizitzako garairik hoberena izan zen, duarik gabe.

Alargun gelditu zenean Angelesek bere alabak bakarrik aurrera atera behar izan zituen eta ez zitzaion pentsiorik geratu. Garai horretan ez zen Gizarte Segurantzarik existitzen, beranduago sortu zen.

Lagunek eta familiak alabak Bilboko Misericordia Etxera eramatea gomendatu zioten, baina Angelesek ez zuen bakarrik geratu nahi. Horregatik, alabak aurrera ateratzeko gogor lan egin behar zuela mentalizatu zen. Eta horrela izan zen. Hasiera batean arropa garbitzen hasi zen -garai hartan ez ziren garbigailuak existitzen- eta eskailerak garbitzen zituen baita ere... Beranduago Murrieta baserria utzi



eta Putxetako etxe batera joan zen bizitzera. Denborarekin etxea erosi alabak izan zuen. Bertan behi bat eta oiloak zituen eta esnea eta arrautzak saltzen zituen. Horrez gain, ortu bat zuen, patatak, tomateak, piperrak eta urazekin. Hauek ere saltzen zituen. Salmenta hauekin lortzen zuen diruarekin

bere alabak elikatzen zituen. Hala ere, behiak hainbeste esnea emateari utzi zuenean, ez zuen hainbeste dirurik lortzen bi alaben beharrak asetzeko, eta beraz ez zuen beste irtenbiderik izan eta meatzari moduan lan egiten hasi zen.

Garai hartan, alabek 6 eta 8 urte zituzten. Angelesek behia saldu zuen eta Cotorrio meategietan lan egitera joan zen. Bertan diru gehiago irabazten hasi zen eta horrekin alabak mantentzen lortu zuen. Hala ere, alabak gero eta nagusia-goak egiten ziren heinean, beharrak gero eta handiagoak ziren eta Angelesek zuen bizi kalitatea okerragotzen joan zen. Horrek ez zion arduratzen, Angelesentzat lehenengo gauza alabak zirelako.

14

Angelesen egoera oso zaila zen: alarguna zen eta gainera, tuberkulosia zuen alaba bat zuen. Las Carrerasesko parrokoak, Recaredo Rasines jaunak, 1948. urtearen hasieran



15

La Gaceta del Norte egunkarira eskutitz bat bidali zuen emakumea bizitzen ari zen ezegonkortasuna erakusteko.

Horrez gain, Bizkaiko meatze-herri ezberdinetako parrokoek (La Arboleda, Gallarta eta Ugarte) beste zenbait eskutitzak idatzi zituzten laguntza behar zuten beste familia batzuen kasuekin.

Garai horretan -eta hirurogeita hamarreko hamarkada artekaritatezko egintzen bidez zailtasun ekonomikoak bizitzen ari ziren familiek dohaintza pribatuen laguntzak jasotzen zituzten eta parrokiek baita ere diru-laguntzak ematen zieten.

Batean, hiritar batek emandako mila pezetako zozketa bat egin zen. Angeles izan zen zozketaren irabazlea eta horrela, bere alabak aurrera eramateko mila pezetako laguntza jaso zuen.



Recaredo jauna parrokoaren eskertze-ko gutuna 1943ko urtarrilaren 23an argitaratu zen la Gaceta



del Norte egunkariko "Miscelanea" atalean. Honela zioen:

"B.P eta kristau eta karitadedun hiritarrari eskertzen ditut, meatzaritzako zonalde koitaduaren oso zalea izateagatik". Eta bere aipamenari erantzuna emanez ondorengo aipua sartu zuen: "Pasaden urteko azaroan nire lagun eliztarra Luis Basail Ranero hil zen tuboerkulosiaz jota. Bere alarguna Angeles Garcia Sainz de la Maza bakarrik geratu zen soilik bere alaben aringarriarekin. Bata Maria del Carmen zuen izena eta 1946ko uztailaren 28an jaio zen. Bestea, Maria Luisa, abenduaren 23an jaio zen eta tuberkulosia hartu zuten baita ere, bere aitak hartu zuen lez. Hala ere, zorionez, alaba sendatu zen".

Parrokoaren gutunaren ostean, Gaceta del Norte egunkariaren kazetariak honako hau gaineratu zuen: "Kasu tristea, irakurleok. Opari bedeinkatua Angeles Garcia Sainz de la Maza alargunak jaso duena!".

Berrogei urte bete baino lehen, Angeles Cotorrio meate-

gietan lan egitera sartu zen. Haien artean Mero-dio, Jose, Domingo edota Puertollanoko meategiak aurkitzen ziren. Bertan hogeitun urtez lan egiten egon zen.



Angelesek beste zortzi emakumeekin batera lan egiten zuen mineral-garbitegi batean eta lurrarekin nahastuta zegoen burdinezko minerala garraiatzen zuen uhal garraiatzaile baten aurrean egoten ziren. Bere lana, emakume guztien lana, alegia, burdinezko mineraletik lurra eta mineralak ez ziren harriak banatzea zen.

Angeles egunero zutik zegoen pasatzen zen mineral guztiari begira, segundu bat ere begirada mineraletik aldendu gabe, harriak eta lurra banatzen. Askotan eskuak izozturik eta zurrundurik geratzen zitzaizkion, eta oinak baita ere. Egunero leku berdinean egon behar zen. Bere lana oso, oso gogorra zen.

Cotorrioko meategian bi mineral-garbitegi zeuden eta bakoitzean zortzi emakumek lan egiten zuten.

Hala ere, Angelesek ez zuen soilik gabitegietan lan egiten, bertan lanik ez zegoenean (mineralak falta zirelako edo uhal garraiatzailea geldirik zegoelako) meategiaren barnera joaten

zen lan egitera. Bagonetekin galerietara jeisten zen minerala ateratzeko. Zenbaitetan gizonekin harrobira joan behar zuen minerala biltzera eta bagonetetara jartzera. Mota guztietako lanak egiten zituen, nahiz eta jabeek hori agintzeko eskubiderik ez izan. Izan ere, egoera hori salatzeke aukera izan zuen, baina ez zuen inoiz egin.

Ez zituzten garbitegian lan egiten zuten emakume guztiak harrobietara bidaltzen. Angeles joaten zen beste gutxi batzuekin, guztiek meategian lan egiteko balio ez zutelako. Lana gogorregia zen. Uhal garraiatzailea geldirik zegoenean edo mineral falta zegoenean, lubetara bidaltzen zituzten emakume guztiak. Lubeta mineral eta lurrezko mordoa zen eta bertatik minerala hartu behar zen, lurra alde batera utziz. Emakume guztiak bertara eramaten zituzten mineralak hartzera saski handi batzuekin. Bertako mineralak lurretik erraz ezberdintzen ziren. Haien kolorea oso ondo nabarmentzen baitzen.



Meatzari moduan ibili zen urteetan, Angeles betidanik gauza bat egin nahi izan zuen baina ez zuen inoiz egin. Cotorrio meategian lan egitera sartu zenetik, meategiaren harrobi osotik ibili nahi izan zuen; Las

Carrerasetik Somorrotorako bidea egin nahi zuen lur azpitik. Arrazoi batetik zein bestetik, azkenean ez zuen egin.

Angeles Cotorrioko meategian hogeituz lan egiten egon zen, meategia itxi zuten arte. Orduan hirurogei urte zituen, gutxi gora behera, eta jubilatzeke bost urte faltatzen zitzaizkionez, Trianotik Olabea-gara zihoazen trenen bagoiak garbitu behar izan zituen. Bertan, Renfen, lan egin zuen erretiratu zen arte.

Cotorrioko meategian lanean egon zenean, egun guztiak berdinak ziren. Angeles egunero goizeko bostetan altxatzen zen alaben arropa eta janaria hurrengo egunerako prest uzteko.

Askotan, meategira joan baino lehen, ortura joaten zen, patatak lurran erein aurretik aitzurtzea komeni zelako. Bertan goizeko bostetik seietara egoten zen. Ondoren, etxera bueltatu eta alaben janaria prestatzera joaten zen. Alabak Barakaldoko mojen eskolara joaten ziren eta goizeko bederatziko trenan hartzen zuten bertara joateko. Horrez gain, Angelesek meategira joateko bazkaria prestatzen zuen. Meategian goizeko zortzietan sartzen zen.

Goizeko zortzietatik hamabietara minerala sailkatzen egoten zen beste emakume batzuen laguntzarekin. Bertako langile askok 14 urterekin sartu ziren meategian lan egitera.



Hamabiak aldera bazkaltzera joaten ziren eta ondoren arratsaldeko zortziak arte lan egiten zuten.

Angelesen alabak helduagoak zirenean bazkaria eramaten zioten amari. Egun batean, aza gordina eraman zioten eta Angelesek

horrela jan behar izan zuen.

Beste batean, bazkaria eramane zioten baina Angeles berandua go irten zenez, guztia jan egin



zuten. Baina ama ez zen inoiz haserre jartzen. "Zer esango diet, haien bizitza oso gogorra izan da, egunero bakarrik egoten ziren!"- esan ohi zuen.



Angeles meategira lan egitera joaten zenean, Rafaela, haien auzokoa, bere alabak esnatzen zituen goizeko zortzietan eskolara eramateko.

Angelesek egunero arratsaldeko zortziak arte lan egiten zuen. Santurtziko portuan itsasontziak zeuden egunetan aldiz, minerala itsasontzietan sartu behar zen eta gaueko hamarrek arte lan egin behar zuten.

Egun horietan oso nekatuta ailegatzen zen etxera, baina arropak josi eta bere alaben afaria prestatu behar zuen. Hurrengo egunean goiz altxatu behar zen berriro lanegun berri batekin hasteko.

Angeles gaueko bederatzietan etxera ailegatzen ez zenean, alabak beldurtzen ziren eta askotan meategira joaten ziren bere bila. Ama berandu ailegatzen zenean lan egiten zegoelako zen eta alabek hori bazekiten arren, txikiak zirenean, nahiz eta negu hotzean egon, ama bilatzera joaten ziren.

Angelesek trikimailu batzuk erabiltzen zituen alabak ama ez



ikustean beldurra ez izateko; erosketak egitera bidaltzen zituen eta horrela, denbora arinago igarotzen zitzaien.



22

Alargundu zenetik Angelesen bizitza oso gogorra izan zen. Benetan zoriontsu izan zenean Luisekin igarotako denbora izan zen. "Arazo guztiak gainditzeko laguntza ematen zidan", gogoratzen du Angelesek. Bere ustez, "Luis gizon miragarria zen eta berarekin egon nintzen urte gutxi horietan nire bizitzako urterik hoberenak izan ziren... baina horrelakoa da bizitza".

Angeles emakume ona eta lagunarte-



koa zen. Mundu guztiak maite zuen. Meategiko gizonekin zuen harremana oso ona zen, ez zuen inoiz arazorik izan, nahiz eta lan horretan gizonak emakumeen gainetik egon.



Lankideek Angelesi "ama" deitzen zioten eta emakumeak bromatan "hainbeste umeeekin, zertarako etortzen naiz ni meategira?", esan ohi zuen.

"Ama" ezizen horren zergaitia ez zuen inoiz jakin, agian zuen izaera adeitsua eta bihozberagatik izango zen.

Angelesek maitasunez gogoratzen du Miguel deitutako lankide bat. Meategian lan egiten zutenek oso gaizki tratatzen zioten. Bere ama Galizian zegoen eta ez zen emakume on bat. Angelesek esan ohi zion: "Miguel zergaitik ez zara Delfinarekin eskontzen?" Delfina bere ostalera zen, ezkongabea zen eta ume bat zuen.

Miguel ezetz esaten zion, agian bere gizarte egoerak eragina zuelako. Baina Angelesek behin eta berriz esaten zion: "Miguel, Delfinarekin ezkondu behar zara, emakume on bat baita". Ekin eta ekin, azkenean Miguelek esan zion Angelesi: "Delfinak nahi baldin badu, ezkontzeko aukera emango diot eta zu ama pontekoa izatea nahi dut".

23





Angelesek ezetz erantzun zion. Miguelen ama Galiziatik etorriko zen baina, hala ere, Miguelek Angeles ama ponte-koa izatea nahi zuen. Angeles serio jarri zen eta Miguelen ama eskontzara ez etortzekotan ama pontekoa izatea

onartuko zuen, baina ama etortzen zenez, amak berak hartu behar zuen kargu hori eta ez zion ohorea kenduko.



Azkenean Miguel Delfinarekin ezkondu zen eta bere



ama, Galiziatik etorrita, ama pontekoa izan zen.

Miguelek Angeles asko maite zuen, emakume ona zelako; bere alabak bere bizitzako gauzarik garrantzitsuena ziren eta



hauek aurrera eramateko egunero lan egiten zuen. Miguelek bere amarekin alderatzen zuen, honek ia ahaztuta bait-zuen bere semea.

Angelesek, Miguelez gain, bere ardura-dun bat gogoratzen zuen.

Guillermo Pellon zuen izena. Honek minerala lur askorekin nahastuta etortzen zenean emakumeak laguntzen zituen, beste gizonak begiratzen geratzen ziren bitartean.

Emakumeen-gan errukitasu-na sentitzen zuen pertsona zen. Meatzari-ren batek emakume batekin eztabaidatzen bazuen edota



mespretxuzko zer-bait esaten bazien, nahiz eta bromatan ibili, Guillerrok esaten zuen: "Ekarri zure ama edota emaztea hona lan egitera eta orduan hitz egin ahal izango duzu".

Angelesek Cotorrio-ko meategietan lan egiten egon zen urteetan, ez ziren istripu handirik gertatu. Istri-



Homenaje rendido por el Museo de la Minería a Ángeles, con motivo de su cien cumpleaños, el 26 de julio de 2010.



28

pu txikiak egon ziren, eraldiren bat edo ebakiren bat baka-
rrik.



Angelesen ala-
bek ikasketak
bukatu zituztene-
an lanean hasi
ziren. Mari Car-
menek, nagusie-
nak, umeak
zaintzen zituen
eta Maria Luisak
(edo Marisak),
txikienak, Bilbora
joan zen bazka-
riak edota afa-
riak zerbitzatze-
ra. Angelesekin
bazkaria eta afa-
ria prestatzen
ziren.



29

Ángeles junto a su hija Mari Carmen.

Mari Carmenek 17 urte bete zituenean Jesusen Bihotzean
erlijioso ordenean
sartzea erabaki
zuen. Moja izan
zen 28 urte bete
zituen arte. Denbo-
raldi horretan bere
ama bisitatzen
urtean behin joaten
zen eta bidaia
batean Jose deitu-
tako gizonezko bat
ezagutu zuen.
Berarekin ezkondu



zen eta abituak utzi zituen.

Bere ahizpa Marisa uda batean Mari Carmen bisitatzera joan zen Alcoyn zegoenean. Bertan Jose Antonio deitutako gizonezko bat ezagutu zuen. Honek zuntz enpresa txiki bat zuen. Marisa Alcoyra bizitzera joan zen. Denboraldi batean bere ahizparekin komentuan bizitzen egon zen eta ondoren bertan ezagututako beste neska batzuekin etxe bat alokatu zuten. Ezkondu baino lehen klinika laguntzaileko titulua



lortu zuen.

Marisak laster Alcoyko "La Resaca" klinikan lana aurkitu zuen. Bertan, pediatrian, lan egiten jarraitzen du. Lan hori aurkitu ostean

ezkondu zen eta jarraian seme bat izan zuen. Seme horrek farmazia ikasketak jada bukatu ditu gaur egun.



Angelesekin meatzari bezala lan egin zuen garaitik gogoratzen duena, neguan hotz handia jasan egiten zutela da. Bi edo hiru ordu lan egiten egon ostean, burdinezko mineralekin nahastuta agertzen zen harriren bat hartzera joaten zenean, hatzamarra ia-ia ezin zituen mugitu. "Hori ikaragarria izaten



zen, jasanezina. Eskuak zurrun geratzen ziren", esan zuen Angelesek Las Carreraseko etxeko besaulkian zegoela.

Angeles langile nekaezina izan zen. Ez zituen inoiz udako oporrak disfrutatu. Oporretan ere lan egiten zuen diru gehiago lortzeko eta horrekin bere alabei jantziak erosten zizkien. Larunbata eta igande guztiak zein Gabonetako egunetan ere, lan egitera joaten zen.



Meatzari guztiek ez zuten igande goizeetan lan egiten, bakarrik Angelesek egiten zuen lan zenbait gizonekin batera. Angelesek makina batzuk garbitu behar zituen eta bertatik

mineral guztia atera. Ondoren, makinek zulo txikiak zituztenez, mailu batekin libratu behar zituen hortik mineral txikia ateratzeko.

1970. urtean, Cotorrioko meategian hogeitaz lan egiten egon ostean, meategia itxi zuten. Berri hau aldezturik bazekien. Ustiape-

na ez zen jada errentagarria eta langile guztiak lan egiteko beste leku batzuk bilatzen hasi ziren. Angelesek esan ohi zuen beste lan bat agertzekotan, meategia utziko zuela, aldezturik bazekielako lan horrek egunak zenbaturik zituela.

Zorionez, Angelesek meategian lan egiten utzi zuenean, Renfeko trenetan garbitzaile lana aurkitu zuen. Olabeagako geltokian trenak uzten zituztenez, egunero goizeko zortzietan bertara joaten zen. Bost urtez lan egin zuen bertan, 65 urte bete zituen arte. Orduan erretiroa hartu zuen lanez gainezkako bizitzari bukaera emanez.



Bere aita meatzaria izan zen baita ere

Vitorianok, Angelesen aitak, meatzari moduan lan egin zuen baita ere. Hasiera batean Galdamesen egon zen. Bertan aire-tranbia batean lan egin zuen. Mineraleko bagoiak eramaten zituen kateko ikuspuntu batean zegoen, hain zuzen ere. Bagoiak trabatuta geratzen zirenean, katea ez gelditzeko bultzatu behar zituzten, beti mugimenduan egon behar zelako. Horretan zetzan bere lana.

Garai hartan Angeles neskaxa bat zen eta bere aitari jana-ria eraman behar zion. Bere aitari ez zitzaion denborarik ematen ordu batean Oncera bazkaltzera joatea. Once Las Carrerasen alboko auzo bat da. Urte bat geroago Vitoria-nok meategia utzi eta Babcock Wilcoxen lan egitera sartu zen.

Angelesek gogoratzen zuenez, bere aitak lan egiten zuen katean bost ikuspuntu zeuden. Lehenengoan bere amaren



neba bat lan egiten zuen, Angelesen osaba, alegia. Besteetan Baldomero, Jose Maria, Jose Castro, bere aita Vitorino eta azken ikuspuntuan Maceo zegoen. Angelesen hitzetan, Maceo munduko gizonik itsusiena zen. Zerbait esaten ziotenean, negarrez hasten zen.

Maceok negar egiten zuenean, Angelesen aitak esaten zion: "ez ezazu negarrik egin neskatilaren aurrean, ez duzu lotsarik...! Eta Maceok erantzuten zion: "Baina ni, ni...".

Angelesen aitak genio txarra zuen. Baina pertsona ona eta langilea zen. Etxera ailegatzen zenean ez zuen denborarik izaten Angelesekin hitz egiteko, ortura edo beste lekuren batera joan behar zen zerbait egitera.

Itsasontziak portuan zeudenean minerala bertara eramateko, gaueko hamarrak arte ez zen etxera heltzen. Egun batean Pobeñan itsasontzi bat mineralez kargatzen ari ziren bitarte-





36

an, hondoratu zen eta minerala uretatik ateratzen laguntzera joan ziren.

Angelesen baita ere bere ama gogoratzen du, emakume ona zen. Bestalde, gogoan geratu zaiona bere alaben jaunartzea izan zen. Egun horretan Angelesek negar egin zuen, haien aita bertan ez zegoelako. Betidanik esan duen bezala: "Haintzat egun berezia zen eta pertsonarik garrantzitsuena falta zen!".

Agian Angelesen egunik zoriontsuenak, alargundu ostean, bere alaben ezkontzak izan ziren. Egun horietan bizitako poztasuna ikaragarria izan zen.

Bizitzak osasun ikaragarria eman zion Angelesi. 98 urte bete zituenean Gurutzetako Ospitalean sartu zen eta ber-

tan ez zuten Angelesen datu bat ere, inoiz gairorik egon ez zelako.

Nahiz eta denbora asko iragan bere senarra hil zenetik, Angelesek oraindik beraren falta sentitzen du. Hala ere, orain ehun urte dituela, Angeles senarra bere alboan ez egoteaz ohituta dago.

Hala ere, zailtasunak izan arren, bizitzan lortu du nahi izan duena; bere alabak aurrera eramatearen helburua jarri zen eta bere xede nagusia lortu du. Horregatik ez da bizitako bizitzagatik kexatzen. Baina berriz jaiotzeko aukera izango balu, ezetz esango luke. "Beste erremediorik izan ez banu garai hartan bezalaxe, ez nuen beste irtenbiderik!" Baina bere bizitza zerotik hasteari uko egingo zuen. "Bizitza oso gogorra izan dut. Eskerrak guztia bukatu dela".

Angelesek erretiroa hartu zuenetik 92 urte bete zituen arte bakarrik bizi zen Las Carreraseko "Gure Etxea" deitutako etxebizitza-blokean. Birikietako mina hartu zuen eta ikaratu



37

zen. Horregatik harrezkeroztik Madrilen denboraldi luzeak egoten da bere alaba Mari Carmenekin.

Bere alaba Mari Carmenen oroitzapenak

María del Carmen Basail Garcia, Angelesen alabarik nagusia, bere ama beti lanean gogoratzen du: meategian, ortuan, etxeko lanetan...

Mari Carmenek baita ere haurtzaro gogorra bizi zuen, baina, bere amak dioen moduan, "eskerrak garai hori amaitu dela". Mari Carmenek Jainkoaren eta gizonaren maitasunak ezagutu ditu, 27 urte zituen arte lekaidea izan baitzen.

38

Bere haurtzaroari buruzko dituen lehenengo oroitzapenak Putxetan bizi zenekoak ziren. Sei edo zazpi urte zituen. Gogoratzen du baita ere bere aitak tuberkulosia kutsatu zionean eta Murrieta auzoan bizi zenean.

Mari Carmen bere ama lan egiten googoratzen du; soinekoak gauetan garbitzen eta txapan eskegitzen. Ondoren, oso goiz altxatzen zen lanera joateko eta gozaria eta bazkaria prestaturik uzten zien bere alabei. Rafaela auzokoak zaintzen zituen.

Gozaldu osten eskolara joaten ziren eta, arratsaldean etxera heltzen zirenean, bere amaren zain egiten ziren, zortziak aldera ailegatzten baitzen lanetik. Orduan afaria prestatzen hasten zen eta hurrengo eguneko bazkaria. Horres gain, arropak josten zizkien.

Goizeko bostetan altxatzen zen. Lehenengoz ortura joaten zen, patatak ateratzen zituen eta manta batzuen barruan



39

uzten zituen. Mari Carmen eta bere ahizpa eskolara joaten zirenean, amak alokatua zuen ortura joaten ziren eta patatak batzen zituzten. Buruen gainean jartzen zituzten ontzietan eramaten zituzten patatak. Azkar egiten zuten, jolasteko gogoak baitzituzten. Gainerako umeak jolasten zeuden bitartean, haiek patatak batu behar zituzten, horregatik ahal eta azkarren egiten saiatzen ziren.

Mari Carmen hamalau urterekin bukatu zuen eskola eta 17 urte bete zituen arte ume bat zaintzen egon zen. Orduan erlijio ordenean sartzea erabaki zuen. Hasiera batean Burgosen egon zen, ondoren Valentzian eta Alikanten gero. Horrela hamaika urtez egon zen, 28 urte bete zituen arte. Denboraldi horretan bere ama urtean behin ikusten zuen bakarrik.

Baina Mari Carmenek abituak uztea erabaki zuen. Ez zitzaion asko gustatzen. Hasiera batean Valentzian lan egiten geratu zen "bakearen mezulariekin". Ondoren, bere ama bizitatzeko asmoarekin egin zuen bidaia batean, Barakaldon Jose ezagu-

tu zuen, bere senarra izango zena. Jose irakasle bezala herri horretako eskola politeknikoan zegoen.

Gero, Madrileko eskola batera lan egitera joan zen eta Mari Carmen Valentziatik Madrilera joan zen. Joserekin sei hilabete egon zen ezkondu ziren arte.

Mari Carmenek bere amaren aldeko aitona-amonak ezagutu zituen. Bere amama sukaldeko besaulki batean jesarrita gogoratzen du eta bere aitona oso trebea zela gogoratzen du. Kutzak egiten zituen eta Mari Carmeni bat egin zion.

Vitoriano Revilla auzoan usategi bat zuen eta egurra lantzea gustuko zuen. Mari Carmeni betidanik esan ohi zion: "bizitza okertzen baldin bazaizu, etxera bueltatu".

Mari Carmenek oroitzapen ona ditu fededun moduan bizitako garaiaz. "Primerako bizitza da, niri asko gustatu zitzaidan baina gero, lilura hori desegiten da. Ijitoen auzo batean lan egin nuen eta pertsona pobreak ikusten nituen, ezer ez zutenak. Nik pobrezia botoak egin nituen eta ez zitzaidan ezer falta. Bizitza hori zentzurik gabekoa zen niretzat".

"Xarma galdu nuen. Ez zen nik espero nuena eta ez zen bizi nahi nuena. Horregatik utzi nuen komentua. Ezkondu



eta pobrezian bizi nintzen, kristau on bat izatea nahiago bainuen fededun gaizto bat baino. Abituak 27 urterekin utzi nituen, ezkondu nintzen eta familia bat osatu nuen. Lau seme-alaba izan nituen eta orain iloba bat dut. Zoriontasuna aurkitu dudala esan dezaket" -adierazi zuen Mari Carmenek.

Mari Carmenen seme bat, Xabier, Bizkaiko meatzaritza gustuko izan zuen betidanik. Bere amama ordezkari bezala izanda, udako arratsalde asko berarekin egoten zen bere iraganari buruz hitz egiten eta bere presentziaz disfrutatzen. Xabierrek bazekien bizitza gogorra izan zuela eta Luis bere senarraren heriotzaren ostean bere bizitzako urterik zoriontsuenak joan zirela. Gutxienez, bere seme-alaben eta ilobekin egoteko denbora asko izan du.


Xabier Bizkaiko meatzaritzaren zale amorratua zen. Gaiari buruzko idatzi ziren liburu guztiak irakurri zituen. Eta Angelesek bere lanaren xehetasunak kontatzen zizkionean, Xabierrek Bizkaiko meatzaritzaren historiari buruz eta meatzariei buruz zekien guztia kontatzen zion.

Angeles bere ilobarekin oso harro zegoen eta bera ere gus-



tuko zuen inoiz ikasi ezin izan duen historia Xabierren ahotik entzutea.

Udako arratsalde batean, Las Carerras etxeko egongela iragana gogoratzen zeudenean, Angelesek Xabierri galdetu zion:



Xabier, noiz jakin zen Triano mendietan burdina zegoela?

- Trianoko mendiak ezagunak dira aspalditik, bertan burdin mea ugari eta kalitatezkoa zegoelako. Kristo osteko I. mendean, Plinio zaharrak esan zuen Bizkaiko Itsasoaren ondoan burdinazko mendi handia zegoela. Halaber, Oiola edo Loiola (Trapagaran) urtegiaren ingurumarietan, K.o. III-IV. mendeetako erromatar zeramika aurkitu da. Antza denez, Triano izena Trajano Hitzetik dator, baina ezin da esan ziurtasun osoz enperadoreari zegokionik.

Erdi aroan eta ondorengo mendeetan, ingurumarietako herrietako biztanleek eskuz ustiatzen zituzten meatzeak, batez ere Somorrostro haranean, eta eskualde horretako meaz burdinoletan fabrikatuko tresnak oso ezagunak ziren Europa osoan.

Hala ere, mendi horietako meategien ustiakuntza XIX. mendeko amaieran eta XX. mendiko hasieran gauzatu zen.



Meak privatizatzeak eta atzerriko baltzuak heltzeak teknika berriak ekarri zituzten, eta hori dela bide, lan irizpide kapitalistak erabiltzen hasi ziren, bada, gero eta mea gehiago erauzten hasi zen, Europako -Ingalaterrakoa batez ere- siderurgiaren eskariari aurre egiteko asmoz. Lan eskuko eskaria asetzeko, milaka eta milaka etorkin heldu ziren, eta horren ondorioz, auzune ugari agertu ziren mendietako gainaldean.

XX. mendeko lehenengo hamarkadetan hasi zen meategietako gainbehera, meatokirik aberatsenak agortzen ari zirelako eta esportazioa gutxitzen ari zelako. Hirurogeiko hamarkadatik, desagertu ez ziren meategiak tokiko siderurgiaren eskariari aurre egiteko baino ez ziren erabili. Meatokiok itxi ahala, mendi eta auzuneak hasi ziren biztanlerik gabe geratzen. Azkenean, 90eko hamarkadan itxi ziren azken meategiak eta siderurgiako enpresa enblematikoen: Bizkaiko Labe Garaiak. Modu horretara, burdin mearen erauzketa eta lantzean oinarritutako mende askotako zikloari eman zitzaion amaiera.


- Nortzuk izan ziren Triano mendien jabeak?

- Mende askoan, oso zaila izan zen Trianoko mendien jabetza norena zen zehaztea. Lur horiek zatitugabeak ziren, eta Somorrostro eta haraneko zazpi kontzejuek eta Portugalete hiribilduak administratzen zituzten. Era berean, zazpi kontzejuok Enkarterrietan zeuden eta ondokoak ziren: Lau Kontzeju (Muskiz, Zierbena, San Pedro eta Abantoko Santa Juliana) eta Hiru Kontzejuak (Santurtzi, Sestao eta Trapagaran). Trapagaran udalerriaren antzina-ko izena San Salvador del Valle de Trapaga.

Urte askotan, hala ere, San Salvador del Valle deitu zioten, eta Muskiz udalerriari, berriz, San Julián de Musques edo Somorrostro, eta Santurtziri, berriz, Santurce.

Herri horietako biztanleek mendi komunal horietako aprobetxamendua - basogintza, abeltzaintza eta meatzaritza- konpartitzen zuten.

Egoera hori erabat aldatu zen XIX.



mendearen amaieran, burdin meategiak eskala handian ustiatzen hasi zirelako. Hori dela bide, Somorrostro hareneko herriek diru-iturri ikaragarria lortu zuten, baina ez zegoen bate-re garbi zeini zegokion meategietako lurren eta jaiotzen ari ziren auzoen jurisdikzioa, horregatik, gatazkak hasi ziren agertzen non-nahi.

Udalerri guztiek egoera berriaren onuradun izan nahi zuten, baina inork ere ez zien nahi mea auzoak egokitzearen ondoriozko gastuei aurre egin, non biztanleak egoera txartxarrean bizi ziren.

Matamorosko goi aldeko mea-auzoei udal administrazioa emateko asmoz, 1883an, Arbitraje Batzordea sortu zen, nahiz eta erlijio, hezkuntza eta judizio arazoetan, Trapagaran udalerriari zegokion. Batzorde hori 1887ra arte agon zen martxan, baina 1885eko ekainaren 30ean, gatazka asko eta asko gertatu eta gero, Gorteek aldarrikatu zuten Matamoros aldea Trapagaran udalerrikoa izango zela, nahiz eta hango biztanleek

beste udalerri independente bat eratu edo Gallartarekin batera beste bat sortu nahi izan.

Trianoko mendietako gatazka ez zen amaitu, meategirik gehienak Santurtzi eta Abanto-Zierbenan zeudelako, eta Somorrostro haraneko gainerako herriek lur horien gaineko eskubidea eskatu zuten, ze euren estetan, jurisdikzioa eta jabetza ez ziren gauza bera. Gaztaka ez zen judizialki bukatu 1899. urtera arte, eta udalerri bi horiei eman zitzaizen arrazoia. Horrez geroztik, mendi eta meategiak Santurtzi, Abanto-Zierbena eta Trapagaranen artean banatu ziren behin betiko.

Meategiak ustiatzearen ondorioz, hazkunde demografikoa ikaragarria izan zen eta desoreka handiak sortu ziren; hori dela eta, Urtuella udalerria sortu zen. Meategietara joandakoak Santurtzi-ko auzo tradizioaletako biztanleak baino gehiago ziren, beraz, euren eskubideak galduko zirelakoan zeuden. Hori dela bide, bi udaletan banatzea proposatu zuten, eta halaxe gerta-



tu zen 1901ean, meategiak Urtuellako lurraldean geratu baitziren.

-Noiz eta nola sortu ziren burdinazko mendi hauek?

- Bai. Orain dela 130 milioi urte, mesozoiko behe kretazikoan, alde hori itsaso bero baten azpian zegoen, itsaso hori ez zen sakona, eta urak lasaiak ziren. Baldintza horietan, molusku asko bizi ziren, esaterako, toucasia, koralak eta abar. Animalia horiek hiltzean, euren zati gogorrenak (oskolak, maskorrak eta abar) -kaltzio karbonatozkoak- itsasoaren atzealdean gertatu ziren, eta geruzak -30 eta 50 metro sakon- sortu zituzten. Modu horretara, toucasia kalitzak izenekoak eratu ziren. Horien gainean itsasertzetatik etorritako beste materialak batzuk (hondarrak, lokatza eta abar) laga ziren, eta arroka sedimentarioak sortu ziren, alegia, hareharriak eta tuparriak.

Edu bertsuan, gatz moduan disolbatutako burdin partikulak geruzotako arrakalen artean hasi ziren ibiltzen, eta kareharrietako kaltzio karbonatoarekin erreakzionatu ziren, eta hortik dator lehenengo burdin mea: burdin karbonatoa edo siderita.

Pirinioetako mugimenduarekin, orogenia alpinoaren lehenengo fasean, orain dela 50 milioi urte batez beste, material horiek guztiak hasi ziren igotzen itsasoko hondotik, eta Bizkaiko mendiak sortu ziren, baita Kantabriar mendikateak, Pirinioak eta Alpeak ere. Trianoko mendiak 500 metro garai ziren gutxi gorabehera, eta Galdameskoek, berriz, 800 metroak gainditu zituzten. Geruza bigunenak tolestu ziren, eta gogorrenak apurtu egin ziren, bada, faila asko eratu ziren, mendi horietako norabidean, hau da, ipar-ekialdetik hego-ekialdera, hots, burdin zainetako norabidean.


Orogenia hori ekuratzean, siderita, siderita masak mendietako gainaldeetan geratu ziren, lurraldearen failak aprobatuz, orduan, herdoildu eta hidratatu egin ziren atmosferaren eragileen ondorioz. Modu horretara, burdin karbonatua oxido (hematite eta oligistoa) eta hidroxido (limonita eta goethita) joan zen bihurtzen, eta beroriek sortu zituen siderita bano aberastun metaliko handiagoa zuten. Hori dela eta, meategi horietako ustiakuntza oso errentagarria izan zen, minerala azaleran baitzegoen, eta burdin mota puruenak zainetako gainaldean -txapela- zeudelako.

Mea alde nagusia Basauritik Kantabriaraino heltzen zen, baina meategi nagusiak Trianoko mendietan zeuden, oso aberatsak eta oso zabalak zirelako. XIX. mendeko amaieran, munduko burdin meatokirik garrantzitsuenak izan ziren.

- Zein motatako burdina ateratzen zen Triano mendietatik?

- Zaina (hematite gorria) nahikoa biguna eta lur itxurakoa zen, gorritik ubel-beltzekara. Legea 558 zen, eta, batzuetan, %61era heltzen zen. Oso aberatsa zen legea, zaina antzinatek ustiatzen zen, burdinoletan erabil zitekeen bakarra baitzen. Hori dela bide, meategi horiei zain meatoki deitzen zieten. Zain mota oso preziatua zen zain beltza, eta errege armamentararako erreserbatzen zen.

Kampaikoak (hematite gorria) kristal egitura zuen, eta legea



55etik %56rakoak zenez. XIX. mendeko 40ko hamarkadan hasi zen ustiatzen. Baina Bessemer bihur-gailua hasi zenean erabiltzen, mea horren erauzketa izugarri hazi zen.



Garai onenak 1875etik 1885. urterakoak izan ziren, eta ordudanik hasi zen eskasten. Antza denez, mea horren izena metala apurtzen ateratzen zen zaratatik dator, kanpai hotsaren antzekoa baitzen.

Horixkaren (hematite nabarra) legea 553 zen; kanpaikoa-ren ordezkoa izan zen 1880tik 1885era. Data horretatik, mearik oparoena izan zelako hasi erauzten.

Horrez gainera, zainarekin batera agertu ohi zen, bertaz, kalitatea handiagoa zen.

Karbonatori (siderita) era budin espatiko edo siderosoa deitu zioten; erabili zen azken burdin mota izan zen. 1889-1890ean hasi zen erauzten handizka. Legea baxua zen, hau da, 40tik %48ra, beraz, beharrezkoa zen



labeetan erretzea kalitate handiagoa erdiesteko.

Trianoko mendietan mea-masa bi zeuden, alegia, Matamoros (Trapagaran eta Urtuella) eta Triano (Urtuella eta Abanto-Zierbena). Lehenengoan, mea nagusia horixka izan zen, zaina, zain-horixka eta karbonatoekin batera. Trianon, zaina eta kan-

paikoa izan ziren nagusi, horixka eta karbonatoekin batera. Galdamesen, horixka eta kanpaikoa izan ziren ugarienak. Hori dela medio, XIX. mendeko erdialdera arte zaina baino ez zen erabiltzen, Trianoko mendiak erauzketa-leku nagusia



izan zen. Galda-
mes, aldiz, ez zen
horrenbeste ustia-
tu, baina alde
horretan kanpoal-
deko burdinola
asko daudenez,
jakin ahal dugu
mea txikizka erau-
zi zela.



- Xabier, norena zen meategien jabetza?

- Hasieran, meategietako jabetza Koroarena zen. Den
dela, foruek eta tokiko ordenantzek mugatu zuten botere
hori. Modu horretara, Somorrostro meagatik Erdi Arroan
eta Antzinako Erregimenean Monarkiak gainerako mea
ustiategietarako ezarritako arauetatik landa egon ziren.

Trianoko mendien aprobetxamendua komunala zen, hots,
Somorrostro haraneko biztanle guztiek eskubide zuten
onurak libre lortzeko. Zernahi gisaz, ez zegoen batere argi
nortzuek lan egin ahal zuten meategietan edo zein erakun-
de edo instituziok arautu behar zituen meatoki horietako
arazoak.

Foruan azaldutakoaren arabera, Bizkaiko herritarrek mea
erauzi ahal zuten mendi horietatik, baina praktikan, hurbi-
leko herrietako, eta batez ere, Somorrostro haraneko biz-
tanleek ustiatzen zituzten. Hortaz, Zazpi Kontzejuek eta
Portugalete hiribilduak aldarrikatzen zuten meategi horien
jabetza eta bertan eurek eskusiboki lan egiteko eskubidea.
Anabasa horrek gatazka ugari sortu zituen.



Erdi Aroan, Koroak, meategietako ugazaba legez, errege
lizentzia eskatzen zuen meategiok ustiatzeko. Bizkaian eta
Gipuzkoan, beste mea batzuetako meategiak ustiatzeko
lizentziak erraz ematen ziren, baina burdin meakoak norbana-
koen esku zeuden eta jaraunspenaz eskualdatzen ziren. Iza-
tez, Antzinako Erregimenean, meategi garrantzitsuenak hart-
zen zituzten lurraldeak komunalak izan arren, zain mea asko
norbana-koenak ziren, beste jabetza bat izango balitz bezala,
hau da, erosi, errentan eman, eta oinordetzan ematen ziren,
besteak beste. Antza denez, XIV eta XV. Mendeetan jabetu
ziren lurraldeoz norbanakoak eta famili taldeak.

Batetik, jabetza komunalaren defendatzaileen eta, bestetik,
norbana-koen eskubideen aldekoen arteko gatazken adibidea
Salazartarren eta Somorrostro haraneko biztanleen arteko
borroka da.



XV. mendean, familia horrek burdinaren merkataritzaren gaineko pribilegio batzuk lortu zituen. Foruan agertutakoa-ren arabera, debekaturik zegoen mineral gordina atzerrira esportatzea, landutako tresnak baino ezin ziren kanpora bidali, bertoko burdinolak babesteko asmoz. Baina Salazartarrek baimena lortu zuten minerala esportatzeko, euren zainetakoa eta Somorrostro haran osokoa gainera.

Arazoak sortu ziren familia hori meatzaritza monopolizatzen ahalegindu zenean. Salazartarren aburuz, zainetako mea San Martin (Muskiz), Galindo (Trapagaran) eta Portugaleteko portuetara bakarrik bideratu behar zen, mearen prezioak ezarri zituzten, eta Zazpi kontzejuetako biztanleei eskatu zieten urtean orgatxo bi zainetako mea ordaintzeko. Halaber, 1456an, Portugaleteko buruzagitza eskubideak lortu zituzten, eta horrez geroztik, euren jurisdikzio zibil eta kriminala lehen aipatutako portuetara zabaltzen saiatu ziren, hau da, portu horietatik esportatutako zainetako

54



55

mearen gaineko jurisdikzioa zabaltzen ahalegindu ziren. Nahiz eta Jaurerria eta kontzejuak horren kontra agertu, gatazka oso luzea izan zen, 1732ko apirilaren 19ra arte, hau da, harik eta Antonio José Mazarredo y Salazar jaunak eskritura eman arte; eskritura horren bidez, zainetako mea eta Trianoko Mendiak "Jaurerriarenak, horren herrienak eta biztanlee-nak" zirela aitortu zen, alegia, ez ziren Salazartarrenak. Azke-nean, 1739an, Zazpi Kontzejuak eta Portugalete hiribilduak portuen gaineko buruzagitza eskubideak eta Trianoko Men-dien jabetza eskubide osoak eskuratu zituzten, Mazarredo jaunari 14.500 dukat -hori bai dirutza!- ordaindu eta gero.

Beste alde batetik, Urrestietako Batzaren –Enkarterrietako ordezkaria- aburuz, lurralde horretako meategiak euren jabetza eskusibokoak ziren, baina horren kontra jo zuen Gernika-ko Batzak -Jaurerriko ordezkaria-, horren ustetan, Bizkaiko biztanle guztienak baitziren.



Zazpi kontzejuen eta Portugalete hiribilduaren iritziz, ordea, eurak ziren jabeak, eta bertako biztanleek baino ezin zituzten ustiatu. Gauzak horrela, ordenantza batzuk ezarri ziren mineralaren erauzketa eta garraioa arautzeko; ordenantza horien arabera ere, herrietako biztanleek ezin zuten meatzaritza negozioan parte hartu, eta hori dela bide, gatazkak ugaltu ziren Barakaldorekin batez ere.

Edu bertsuan, burdinaren merkataritzak sortzen dituen onura handiek Bizkaia Jaurerriaren eta Gipuzkoako probintziaren arteko interes gatazka ekarri zuten. Zainetako mea beste herri batzuetara esportatzea debekaturik zegoen, baina Erresumako beste leku batzuetara eroatea, ordea, librea zen eta ez zen zergarik ordaintzen. XVII. Mendean, Jaurerriak Bizkaitik ateratzen zen zainetako mearen gaineko zerga ezarri zuen, eta Koroak berak onetsi zuen; eta Gipuzkoara esportatzea ere debekatu egin zen, Somorrostro haranean mea gutxi omen zegoelako.

56



57

AZKEN EMAKUME MEATZARIA

Denbora luzean negoziatu osten, Gipuzkoako burdinolak hornitzeko hitzarmena sinatu zen.

Hala eta guztiz ere, mearekin lotutako gatazkak Zazpi Kontzejuetan eta Urrestietako Batzan ere gertatu egin ziren, kontzejuok meategiak eskusiboki ustiatzeko eskubidea aldeztu zutelako. Haatik, 1731n sinatu zen hitzarmen bat, zeinaren arabera, Enkarterrietako edozein gizabanakok aske lan egin ahal zuen meategiotan.

Hortaz, Enkarterrietakoen zain-meategietako jabetza zuten, baina Jaurerriak eskubidea zuen ustiakuntzaren gaineko zerga jakin batzuk ezartzeko. Alabaina, XVIII. Mendean, Urrestietako Batza politika eta administrazio eskumenak galduz joan zen, eta Gernikakoak, ordea, eskumenak irabazi, batez ere Enkarterrietako kontzejuak Jaurerrian integratuz joan zirenean; halako moldez, Zazpi Kontzejuak 1799ko abuz-




tuaren 13an Bizkaia Jaurerrira bildu ziren. Horrez geroztik, meategien inguruan arautzeko arduraduna Jaurerria izan zen.

Hala ere, praktika tradizionalak -tokiko mea ordenantzetan jasotakoak-. "ohituraren arabera" urte askoan aplikatu zirenez, gatazkak sortu ziren, Somorrostro haraneko auzokideek ez zutelako galdu nahi mea ustiakuntza arautzeko eskubidea, euren ustetan, eskusiboa baitzen.

-Nola kontrolatu zen mineralaren ateratzea portu ezberdinetara?

- Mea erauzketa eta portuetarako garraioa kontrolatzeko asmoz, Somorrostro Haraneko Zazpi Kontzejuek ordenantza batzuk erredaktatu zituzten bertako auzokideek mea ustiakuntzaren onurei euts diezaieten.

XV. mendeko amaieran eta XVI. Mendeko hasieran, burdinaren eskariaren hazkundeak prezioen igoera ekarri zuen, bada, mea-lana oso errentagarri bihurtu zen. Hortaz, Somorrostro haraneko auzokideak negozio horretan baino



ez ziren aritu, eta aldeko abaguneari ahal eta aprobetxamendu handien ateratzen saiatu ziren, horren ondorioz, kexu asko jaso ziren mea ez zelako kalitate onekoa. Horrez gainera, nekazaritza eta abeltzaintza ustiategiak bertan behera utzi zituzten, eta elikagaiak hasi ziren urritzen. Eskualdeko gain-behera ikusita. Zazpi Kontzejuek eta Portugalete hiribilduak bilera bat egin, eta meategietako lana arautzeko ordenantzak ezartzea erabaki zuten.


1561ean, ordenantza batzuk erredaktatu ziren, 1482ko batzuetan oinarriturik, zeintzuk "usadio eta ohituraren" arabera aplikatzen ziren. Arautegi horietan xedatutakoaren arabera, apirilaren 1etik uztailaren 31ra arte baino ezin zen meatzaritzan jardun, eta eginkizun horietan parte hartu ahal zuten bakarrak bertako auzokideak ziren, eta kanpokoek zainetako mea erosi edo merkaturatu baino ezin zuten egin.



Asko eta asko agertu ziren ordenantza horien aplikazioaren aurka, besteak beste, Jaurerria eta Salazartarrak. Izan ere, Jaurerriaren ustez, mea produkzioa itzek murritzen zen legez, oso zaila zen burdinolak meaz hornitzea; Salazartarren ustetan, aldiz, negozio horren gainean zuten kontrola murriztu zen. Beste batzuk ere ordenantza horien kontra azaldu ziren, besteak beste, mea itsasontziz garraiatzen zutenak edo merkataria.

Ordenantzen aurkariak asko ziren arren, eta ordenantzok ondorio barik uzteko ekintza anitz -Jaurerriarekiko gatazkak, Gipuzkoarekikoak eta abar- gauzatu baziren ere, Somorrostroko auzokideek lortu zuten ordenantza horiek aplikatu eta aldezte, batez ere ulertu zutenean diru gehiago denbora gutxiagoan irabazten zela, izatez, eskaintza mugatu zenean, prezioa nahikoa igo zen.

1960ko maiatzaren 1ean, Zazpi Kontzejuek beste ordenantza bat onetsi zuten. Ordenantza horren arabera, debekaturik zegoen neguan lan egitea istripu asko gertatzen



baitziren, lur-jauziek zainak estaltzen zituztelako, eta nekazaritza lanak estaltzen zituztelako, eta nekazaritza lanak albo-ratzen zirelako. Horrenbestez, mea erauzi eta garraiatzeko aroa martxotik irailera artekoa izan zen. Beste alde batetik, auzokide bakoitzak orga baino ezin zuen eduki mea garraiatzeko, eta zazpi edo zortzi idi gehienez. Horrez gainera, orga zuenak ezin zuen mea mandoz garraiatu, eta alderantziz.

1644an, aurreko ordenantzak berretsi eta meategietatik portuetara egunean bi bidaia baino gehiago egitea galarazi zen.

1701ean, ordenantza murriztaileagoak onetsi ziren, lehen aipatu ziren arrazoiak direla eta, zama abere gehiegi erabiltzeak kalteak eragiten zituelako mendietan eta soroetan. Debe-katuta zegoen lau mando edo lau idiko orga baino gehiago izatea. Berrir ere gebendu egin zen



neguan lan egitea, eta minerala maiatzetik urrira arte baino ezin zen garraiatu. Horrez gainera, ohituraren arabera, baldin eta auzokide batek urtebete eta erdian uzten bazion lan egiteari, beste auzokide batek lan egin ahal izango zuen bertan. Errege Kontseiluak berretsi zuen ordenantza hori 1702ko uztailaren 12an.

1741eko maiatzaren 1ean, ordenantza are murriztaileagoak onartu ziren. Hiru zaldi edo idi biko orga baino gehiago erabiltzea debekaturik zegoen. Meategietatik portuetara egunean bi bidaia baino gehiago egitea debekatu zen, baita bideetan mea uztea ere, beste bidaia gehiago egiteko erabiltzen baitzen. Halaber, debekaturik zegoen kanpoko meategiak eta mea saltzea. Horrez gainera, auzokide bakoitzak meategi bat baino ezin zuen landu.

Meatzaritza horrenbeste murrizten zuen ordenantza horrek gatazka asko sortu zituen, eta behin eta berriro ez zen bete. Azkenean, 1761ean, Valladolideko Kantzelaritzak agindu zuen 1701eko ordenantza aplikatzeko, eta gogorazi egin zuen ordenantza berriak emateko, Errege Kontseiluaren onespena behar zela.

Gerta ala gerta ez, ordenantza horiek XIX. Mendera arte indarrean egon arren, urraketak etengabeak izan ziren, negozioa oso irabazizkoa zelako. Horrez aparte, meatzari txiki autonomoen eta jabadun handien arteko liskarrak are agotu ziren; izan ere, txikiek meatzaritza jarduera ahalik eta gehien murriztu nahi zuten eta handiek –mea merkataria, besteak beste-, ordea, ahalik eta onurarik handien lortu nahi zuten. Horrela beraz, XIX. Mendean, meatzaritza buruzko lege berriak hasi ziren aplikatzen, eta sekto-rea liberalizatu zen; horren ondorioz, Somorrostro harane-



ko auzokiderik gehienek bizimodu tradizionala bermatzen zuten ordenantzen alde egin zute

- Zein nolako diskurtsoa egin duzun Xabier! Ordenantzak alde batean utziko ditugu eta gaia aldatuko dugu, esadazu, non aurkitzen ziren burdinazko meategirik nagusienak?

- Burdinolek zainetako mea baino ez zuten erabiltzen, eta kopururik handiena. Granada ibaiko sakanean (Trapagaran eta Urtuella artean) zegoen eta handik Gallartarantz (Abanto-Zierbena), hau da, Trianoko mea masarekin bat datorrena. Matamorosen kopurua txikiagoa zen. Dena den, meategi garrantzitsuenak alde horretan egon arren, beste toki batzuetan ere badago, hala nola, Barakaldon, Saratxon (Guenes), Bilbon eta abarretan.


- Nola ateratzen zen burdinazko minerala Antzinako Erregimenean?



- Antzinako Erregimenean, meatokiak ustiatzeko sistema oso kaotikoa zen; izan ere, mendi komunalak zirenez, mea erauztea ez zegoen ia-ia araututa. Egurrezko gurutzea edo harriez egindakoa lurtean jartzea nahikoa zen bertan lanean eri zirela adierazteko. Zeinu horri esker, meategioi edozein jabetzari ematen zaion tratamendua ematen zitzairen, hau da, meategi horiek saldu edo oinordetzan hartu zitezkeen, esaterako. Hala ere, urtebete eta egunbetez lanari uzten bazioten, eskubide horiek galtzen zituzten, eta beste pertsona batek landu ahal izango zuen bertan.

Mea erauzteko sistema nahikoa erraza zen, mea azaleran baitzegoen. Gehienetan, eskuz erauzten zen, pikotxa eta beste tresna xume batzuk erabiltzen ziren zuloak egiteko, kanpoaldean edo galeria txikietan.

Antza denez, Europako meatokietan erabiltzen ziren beste sistema batzuk ere erabili egin ziren, besteak beste, fire-setting sistema, hots, mea blokearen ondoan sua pizten zen, beroaren eraginez, zatitan apur zedin eta errazago



atera zedin. Horrela, Bizkaiko meatokietan erauzketa egiteko erari buruzko lehenengo agirietako batean agertu bezala.


Urte batzuk geroago, Bizkaiko meatokietan erabilitako erauzketa sistemaren beste azalpen bat dugu. A. Cronström jaunari leporatutako eskuizkribu batean. 1650etik 1670. urtera Europan zehar bidaiatu zuen suediar metalurgia-enpresaburu horrek ustiakuntza sistema batzuk bereizi zituen. Alde batetik, Somorrostro meatokietan –garrantzitsuenak-, mea erraz erauzten zen falkez eta burdinazko mazoz, baina harkaitza oso gogorra bazen, bolbora ere erabili egiten zen. Ustiategiak oso izatez gainera, ez ziren oso sakonak. Urez betetzen zenean meatokia, berori abandonatzen zuten. Beste sistema bat “barnealdeko meatokietakoa” zen, leku zehatza aipatu gabe; sistema horren arabera, lan egiteko modu bizi zeuden, alegia: batetik putzu eta galerien bidez, eta bestetik, lan bertikalen



bidez, zeinetan garabiaz edo dibidietaz ateratzen zen ura; kasu biotan, bertoko meategiak eta Alemaniakoak konparatzen ziren, orduan, leku batzuetan sistema aurreratuenak ezagutu eta aplikatzen zirela egiazta daiteke.

Dena den, agirik gehienen arabera, Antzinako Erregimenean. Trianoko Mendietan behintzat, ustiakuntza sistema nahikoa erraza zen, kalitate handiko minerala ugaria baitzen; izan ere, mea erauztea zailtzen zenean, meatokia uzten albo eta beste meatoki hobe baten bila zihoazen. Horren ondorioz, mea ustiakuntza anarkikoa eta landu gabea zen, eta berrikuntza teknikorako inbertsiorik egiten, beraz, meategietako mea kopuru handiak galtzen ziren eta, askotan, lan baldintzak oso txarrak ziren.

Beste alde batetik, langile autonomoen talde txikiek ustiatzen zituzten meatokirik gehienak; izatez, langileok ez ziren



benetako meatzariak, baizik eta nekazariak, eta lan horren bidez, famili ekonomia eskasa osatzeko diru-sarrerak lortu nahi zituzten. Horrez, gainera, meatokietako ezaugarriak kontuan hartzen baditugu, ustiakuntza sistema oso anarkikoa zen, baina egokia zen oso langile horien beharrazane aurre egiteko, gastu handirik ezin zutelako egin; dena den, berrikuntza teknikoak garatu ez zirenez eta praktika "estentsiboak" gauzatzen zirenez, etekinak gero eta txikiagoak ziren.

1783an, Fausto Elhuyar jaunak meatoki horiei buruzko txostena egin zuen, non lan sistema eta erauzketak ordena eta plan-gintzarik gabe egitea kritikatzeko. Faustoren arabera, meatoki horietan bolbora erabiltzen zen.

Hala ere, antza denez, XVII. mendean, bolbora erabiltzen hasi zen arren fire-seting sistema ordeztzeko, ustiategi txikirik gehienetan, esku tresnak erabili ohi ziren, baina kasu zehatz batzuetan edo meatoki nagusietan, lehergaiak erabiltzen



ziren.

1826an, González Azaolak esan bezala, ezkerretik eskui-nera zihoazen putzuak ziren meatokiak, apur bat maku-rarak, baina sakonera handirik gabe, "hilobien antzera". mea zaina agortu arte ibiltzen lanean, edo zaina bera jauzi arte. Ezer aurkitzen ez bazuten bertan behera uzten zuten lekua eta lana. Ura eskuz ateratzen zen, edo ura xukatu gabe uzten zuten, eta "zorigaiztoko bizkaitar bakoitzak istilduta lan egiten zuen bertan". Lanaren oinarria langileen indarra zen, eta ez zen makinarik erabiltzen, ezta lehergailuak ere.

Batzuetan, galeriak handiagoak ziren, baina handiegirik ez. Elhuyar jaunaren esanetan, zenbait meatoki 50 oinka-da luze ziren. W. Gill-en berbetan, 1992an, Concha 1 ize-neko meatokiko antzinako ustiategiek mila bateko luzera eta 53 metroko sakonera zuen labirintoa osatzen zuten.

1843an, Amat de la Torrek meatokietan erabiltzen ziren tresnak zerrendatu zituen: pikotxa, borra, seta eta setón (tamaina desberdineko falkak), xaflak, laztabina (dela gutxi hasi zen erabiltzen) eta porreta (mailua). Zamalanetarako, gabiak (saskiak) erabiltzen zituzten, eta arpel edo arraspen bidez kargatzen zituzten meatokiaren barruan, eta eskua-reaz kanpoaldean.

1851ean, Lucas Aldamak esan zuen ez zela bolbora era-biltzen. Autore horren arabera, meatzariak ez zuten bolbo-ra erabiltzen, helburua lortzen ez zutelako edo erorketa arriskua zegoelako, oso lur landua baitzen.

Mearen kalitatea eta kantitate handiaz gainera, mendien jabetza sistema zerikusi handia zuen meatokiak ustiatzeko



garatu gabeko eran, izatez, mendiok komunalak zirenez, auzokide guztiek eskubide zuten mea nahi zuten tokian erauzteko. Halako moldez, auzokide batek mea ona aurkitzen zuenean, denok joaten ziren toki horretara, onurak atera ahal izateko. Horregatik ez zen interesgarria inbertsiorik egitea; zernahi gisaz, edozein arrazoi dela eta, ustiakuntza zailtzen bazen, hobeto zegoen meatoki hori bertan behera uztea eta beste zain bat topatzea. Antolaketa eza eta meatzarien arteko lehia direla eta, batzuetan, mea asko zen aprobetxatzen, eta kalitate eskasekoa ateratzen zen, beraz, merkataria eta olagizonak kexatu egiten ziren.

Lanak planifikatzen ez zirenez, zain ona aurkitzen zenean, meatzari taldeak lanean hasten ziren, erauzketa baten eta bestearen artean eremurik utzi barik. 1769ko auzi batean, meatokiaren jabetzari buruzko auzi batean, agertu bezala, meategi batetik bestera 50 oineko eremua utzi behar zen.

Hala ere, 1799an, Humboldt-ek esan zuen meategien arteko distantzia 10 oinekoa zela, eta 1826an, Azaolak salatu zuen ondokoa zela uzten zen distantzia: "lan egiteko erabiltzen zuten pikotx-kirtenarena, hau da, bi oineko luzera eskas".

Meategietako antolakuntzarik ezak meatzarien arteko lehia sorrarazten zuen, mea zainik onenak eskuratu nahi zituztelako, bada euren arteko liskarrak ohikoak ziren.

Mea eskuratzeko borrokaren ondorioz, meatzari batzuek galeriak egiten zituzten jadanik zulatutako beste galeria batzuen azpitik. Humboldt-ek adierazi bezala, behetik zulatzen zutenak goikoengana iristen zirenean, goikoek bide librea utzi behar zuten. Meatoki topo egiten zutenean



-askotan gertatzen zen-, auzilariek tokiko justiziara jotzen zuten, eta justiziak ingeniariari edo mendiko gidariei ematen zien mandatuak, eztabaidak konpontzera joan zitezkeen.

Meategietako baldintza kaskarrok istripu ugari sortzen zituzten. Kanpoaldean lantzen ziren meategiak ez ziren hain arriskutsuak, dena den, lur azpikoetan -gehienak, garai hartan-, erorketak ohikoak ziren. Galeriarik gehienak ez ziren habetzen, edo modu kaskarrean habetzen ziren. Zulo eta zutabeen sistema erabili ohi zen, hau da, sakondu ahala mea zutabe batzuk uzten zituzten, sabaiari eusteko. Dena dela, sistema horren bidez, mea nahikoa galtzen zen, ondorenez, ahalik eta zutabe gutxien jartzen ziren, eta uzten zirenak ez ziren behar bezain sendoak. Batzuetan, zutabe horiek argaltzen ziren ahalik eta onura handien ateratzeko, beraz, meategietako segurtasunik eza ikaragarria zen. Hortaz, ez da harritzekoa

istripu ugari gertatzea.

-Nork ordaintzen zituen txirletan gertatzen ziren istripuak sortzen zituzten gastuak?

- Kontzejuak meategietako istripuen ondoriozko gastuen kargu egiten ziren, meategiok komunalak zirelako. Baina XIX. mendean, jabetza pribatua kontsakratu zuten lege berriak aplikatu zirenean, meatzari jabe batzuk ohitura horri eusten ahalegindu ziren, nahiz eta eurok izan euren meatokietako segurtasuna bermatzeko arduradun.

1848an, auzi bat sortu zen "meatokian Adela gertatutako erorketak harrapatutako langile bat ateratzeko gastuak ordaintzari buruz", eta meatoki hori Portugalete eta Sestao auzokide batzuen zen. Jabe horiek nahi zuten meatoki horren Udalak istripuaren ondoriozko gastuak ordain zit-

72



73

zan. dena den, Bizkaiko gobernu politikoak erantzun zuen jabeak zirela meatokia egoera onean mantentzeko arduradunak, eta langileen segurtasuna bermatu behar zutela.

Meatokietako ustiakuntza sistemaren kasu bitxia Mina del Rey edo la Bomba izeneko meatokiarena zen; izan ere, Azaolaren aburuz, "meatoki"tzat jo zitekeen bakarra zen". XVIII. mendeko amaieran, Koroak Jarrozuela izeneko lekuan ezarri zuen meatoki bat, Liérganes eta La Cabadako (Kantabria) errege fabrikak burdinaz hornitzeko. Ingurumarietan Casa del Rey izeneko eraikina altxatu zuten. Alemaniar teknikariak ingeniariaren laguntzaz egin zuen lurpeko meatoki hori. Bi galeria egin ziren; bat, hustubiderako, eta bestea, berriz, mea erazteko; galeriok oso luzeak omen ziren, kontuan hartzen bada langileei argia emateko 24 kriseilu erabiltzen zirela. 1796an, lanak gelditu ziren, eta 1797an, enpleguak kaleratu zituzten,



beraz, meatokia utzi zuten.

Alzola adierazi bezala, Erregearen meatokiaz gainera, 1826an meatokitizat jo zitezkeen beste meatoki batzuk ondokoak ziren besteak beste: Nicolás de Llano, horren aitaginarreba Oleagak 1804an hasitakoa, nondik orgak sartzen ziren; Mier-ena, Llanoren meatokitik oso hurbil, Mier meatokira ura husten zuena, eta Mier-enak ura husten zuen Erregearena, bertan, xede horretarako eraikitako galeria aprobetxatuz. Bedijon, beste bi galeria zeuden, Ybarra eta Echevarri jaunena, baina ez ziren oso sakonak, eta urez beteta zeuden.

Oro har, meatokiak ustiatzeko baldintzak oso txarrak ziren, eta meategi bakoitzeko langile kopurua oso txikia zen, baita lansaioa ere, orduan, erauzteko gaitasuna oso murrizta zen.

Meatzaririk gehienak langile autonomoak ziren, eta udan baino ez ziren aritzen erauzketa eta garraioan. Batzuetan, pertsona batzuek batera ustiatzen zuten meategia, eta beste batzuk, ordea, zatitan edo lursailetan banantzen ziren, eta langile bakoitzak berea lantzen zuen, senideen edo jornalari batzuen laguntzaz, zuzendaritza teknikorik gabe.

1826an, Nicolás de Llanoen meatokiek baino ez zuten peritu praktikorik. Dena den, peritu praktiko edo meatokizainek ustiatagia zaintzen zituzten, teknikaren ikuspegia zuzendu beharrean.

1783an. Elhuyar jaunaren ustetan, martxan zeuden 120 meatokietatik gehienetan, 3, 4 edo 5 pertsonako taldeak ari



ziren lanean. Batzuetan, jabeak ziren, beste batzuetan, aldiz batzuk baino ez ziren jabeak, eta gainerakoetan, jornalari ari ziren beharrean.

Elhuyar jaunak esandakoarena arabera, eguneko lansaioa lau ordukoa zen. Goizeko zortzietan hasten zen jardunean, eta zalditeria heldu arte erauzten zen mea, hots, hamar eta erdie-tan, mea portuetara garraiatzeko. Zaldi-orgetan kargatu ostean, atsedean hartzen zuten. Ordu bietan hasten ziren berriro mea erauzten, eta arratseko lauretan, zamatzen zuten minerala, hau da, portuetarako bidaia bi egiteko lain egiten zuten lan.

Langile bakoitzak 14tik 16 kintalera erauzten zuen eguneko, eta batzuetan, 20ra heltzen ziren. Zama bakoitzaren prezioa erreal batekoa zenez, langile bakoitzak 8 erreal gehienez produzitzen zituen egunean. Jornalari baten eguneko soldata 5 errealekoa zen. Elhuyarren aburuz, lehen aipatutakoa eta gastu finkoak -tresnak, idien mantentzea eta bolbora- kontuan izanda, meatzariak kasik-kasik ez zuten irabazirik lortzen. Hortaz, onura likidoak lortzen zituzten bakarrak "birsaltzaileak"


ziren, hau da, mea merkatariak.

Halaber, jornalarietaz soldataz gainera, ardoa, oinetakoak eta abar eman ohi zitzaizkien. 1763an, "la Reineta" meategian ekainetik urrira arte lan egin zuen jornalari batek esaten zuen bere soldata 4 erreal eta erdikoa zela, gehi 16 erreal, oinetakoen balioa, "ohitura baita". Beste lan batzuetan, ardo zahatoekin ere ordaindu egiten zen.

1799an, Humboldt-ek esan zuen 230 langilek edo erauzten zutela minerala maiatzetik urrira arte. Igandeetan eta jaiegunetan ez zuten lanik egiten, bada, lanegunak 140 bakarririk ziren. Langileak meatokiko jabeak ziren, baina jornaleko lan egiten zutenean 5 erreal kobratzen zuten eguneko. Humboldt-ek iritziz, gastuak kenduta, meatzariei "nekez irabazitako jornala" baino ez zitzaien gertatzen, eta benetako irabaziak ateratzen zituen "merkataria, meatzariaren eta burdinolaren arteko artekaria" zen.

Azaolak, berriz, esan zuen 1826an 400 inguru meatzari-gehienak Hiru Kontzejuetakoak ziren- zeudela, eta maiatzetik urrira arte lan egiten zuten "eguneko 5 errealeko jornal kaskarragatik", alegia, soldata ez zen aldatu 1783tik, beraz, autore horren aburuz, meatzarien egoera txarra zen, eta benetako onuradunak tratulariak ziren.

Batzuetan, merkatariak meatokietako ahoan edo portuetan erosten zieten minerala meatzariei; beste batzuetan, meatzari eta gurdizainei aurreratzen zieten dirua hornidura eta prezio merkeagoa bermatzeko, eta bestetuetan, prozesu osoa kontrolatzen zuten euren meatokiak ustiatuz. Tratulari horietako batzuk meatokietako jabe bihurtu ziren, XIX. mendean meatokiak pribatizatu zirenean. Izatez, 1827an,




Ybarra-Mier y Compañía sozietatea sortu zen, zeinetara tratularirik garrantzitsuenetako batzuk bildu ziren, eta sozietate hori eskualdeko meatokietako jabe nagusia izan zen.

Langileen lan baldintzei dagokienez, esan behar da meatzariak meatokietatik urrun bizi zirela, XIX. mendearen amaierara arte ez baitzegoen inolako auzorik Trianoko Mendietako gainaldean. Azaolak esan ohi zuen meatzariak euren etxeetatik meatokietara joateko bizpahiru ordu edo gehiago eman behar

zutela, eta "tresnak, ogia, ur katilua eta behar besteko janaria" eroaten zutela, baina janaria oso eskas zen lan horretan murgiltzeko.

1851ean, Aldamak kontatu bezala, meatzariak goizeko zortzietan heltzen ziren mendira, eta artoa, arto-ogia eta urdai errea jaten zuten. Bederatzietan edo bederatzi eta erdietan, ekiten zioten lanari. Hamabietan, goizean jan zutena berriro jateko hartzen zuten atsedena. Uztailaren amaieratik, garia landu zutenek ogi zuria eroaten zuten, sardina freskoekin edo bakailao gordinarekin -erreta- jateko. Horrez geroztik, lo kuluxka egiten zuten, eta ordu bietan hasten ziren berriro lanean, ilundu baino ordu eta erdi lehenagora arte.

Dena dela, Azaolaren kontrolik eza erabatekoa zen, izan ere, "meatzari bakoitza nahi duenean joan edo etortzen da", baina beharbada askatasun horiek langile autonomo-



ei zegozkien, eta ez ordea jornalarietara.

Horrez gainera, lansaioa oso luzea ez bazen ere, lan baldintzak nahikoa kaskarrak ziren. Elikadura eskasa zen eta etxetatik mendietara josteko denbora luzea zen, lana, oso gogorra, hezetan ugari, galerietan ur kantitate ikaragarria metatzen



zen, eta askotan gertatzen ziren istripuak.

Azkenean, mea erauzi eta gero, atera garraiatu behar zen. Meatzari taldeek txandaka zulatu eta ateratzen zuten mea, eta horretarako sokak (lerak edo trapak) erabiltzen zituzten, hau da, adar narra baten gainean kutxa edo saski bat ipintzen zuten, eta horretatik ibiltzen ziren tiraka animaliak. Trapa edo lera asko zeudenez, baliteke Valle de Trapaga-Trapagaran toponimoak jatorri hori izatea.


XIX. mendean ere trapak erabili ziren, sarbide zaila zuten lekuetan batez ere. Meatokietatik, gurdizain eta mandazainek eroaten zuten mea portuetara, eta bertatik, herri osoko burdinoletan banatzen zen.

- Aurreko garaian, nola garraiatzen zen minerala burdinoletaraino?

- Mea Euskal Herriko eta beste eskualde batzuetako - Kantabria, Asturias, edo Galizia- burdinoletara bidaltzeko, mendietatik ontziralekuetara -Galindo, Ugarte eta Causo (Trapagaran), Portugalete eta Muskiz- eroan behar zen.

Minerala idi eta mando gurdiz jaisten zen. Minerala garraiatzea oso jarduera garrantzitsua zen Somorrostro haraneko auzokideentzat, maiatzetik urrira arte, halaxe baimentzen baitzuten ordenantzek. Ataza horretan emakume eta haur asko ibiltzen ziren. Hartara, esan daiteke modu batera edo bestera familia osoak parte hartzen zuela meatzaritzan.

Mea erauzi eta garraiatzen zuten pertsonen kopurua siderurgi industriaren eskariaren arabera zen logikoki. Hortaz, XVII. mendean, krisi orokorra dela eta, meatzarit-



za jarduerak behera jo zuen, eta XVII. mendera arte ez zen berreskuratu. 1655eko auzi batean azaldu bezala, mendearen hasieran, Hiru Kontzejuetan, berrehun orga zeuden "mea garraiatzeko", baina une horretan, hogeita lau ziren.

1799an, Humboldtnek esan bezala 230 langilek erauzten zuten mea "eta ez askoz gutxiago zebilen garraioan". González Azaolak esan zuen 1826an, 80 eta 100 idi orga zeuden, "gehienak Lau Kontzejuetako auzokideenak" eta 500 mando inguru.

Harrigarria da Azaolak deskribatutako banaketa, ze 400 meatzaritarik gehienak Hiru Kontzejuetakoak ziren, eta garraiolari-rik gehienak, aldiz, Lau Kontzejuetakoak ziren, eta garraiolari-rik gehienak, aldiz, Lau Kontzejuetakoak.

1851ean ,Aldamak emandako kopuruak ondokoak ziren: 300

meatzari, 25 lerako (50 lera-zaldi), 75 mandazain (320 mando) eta 250 gurdizain (250 uztarri)..

Beste alde batetik, mea jaisteko bideak oso okerrak ziren, lurralde oso malkartsua baitzen. Jovellanosen aburuz, mea Ugarte eta Galindoko portuetara eroateko, "bi ordu behar ziren, oso bide okerra baitzen".

Batzuetan, bidaiak ez ziren egiten meategietatik portueta-
ra zuzenean (nahiz eta meatzaritza ordenantza batzuek debekatu), baizik eta behealdeko leku batzuetan, mea uzten zen, eta bertatik, errazago garraiatzen zen portueta-
ra. Hartara, Urtuellako aldean, gordailuok Otxartaga ize-
neko aldean zeuden, eta Hiru Kontzejuek zainak zaintzeko
eta gordailuak erabiltzeagatiko zergak kobratzeko ardura hartzen zuten.

Bideak erauzketa-alde nagusitik (Triano) Urtuellarantz jais-
ten ziren. Urtuellatik eta Trapagarandik Ugarte eta Causo-
ko portuetara eroaten zen mea, eta Urioste eta Salcedillo-
tik Galindoko portura. Ugartera Matamorosko mea batez
ere heltzen zen, Zuloko errekarainoko (egungo La Arbole-
da auzoko ingurumarietan) zuzeneko bide bati esker. Mus-
kizen ondoko meategietatik San Martin portura eroaten
zen, eta lehorretik, Kantabriarantz eta Enkarterrietako
beste alde batzuetarantz.

Dena den, 1865ean Trianoko burdinbidea martxan jartzea-
ren ondorioz, mea garraiatzen aritzen zen jende kopurua
izugarri jaitsi zen. Azkenean, mende horretako 70eko
hamarkadan, jarduera hori bertan behera geratu zen, tren-
bideak orokortu zirelako, eta garraibide modernoagoak -
plano makurrak eta airezko trenbideak- martxan jarri zire-



lako.

Burdina ontziratzeke portuen inguruan, esan beharra dago
Somorrostro haraneko garrantzitsuenak Hiru Kontzejuetan
zeudenak zirela, hau da, Galindo, Ugarte eta Causo.

Erdi Aroan ere portu horiek aipatzen dira, Muskizko San Mar-
tin eta Portugaletekoarekin batera. Portuok sortzen zituzten
diru-sarreraren garrantzia ikusita, eskualdeko leinu nagusiak
portuok kontrolatzen saiatu ziren. Salazartarrek kontrolatzen
zuten San Martin portua, euren dorrea hurbil baitzegoen.
Familia horrek Portugalete hiribilduko buruzagitza eskubideak
zituen, eta beste portu batzuk kontrolatzen ahalegindu zen.
Halaber, Ayalatarrek sortu omen zuten Galindoko portua.
Halaber, kontzejuek eta Jaurerriak jarduera hori arautu nahi

izan zuten, zaintzaileak (errenteroak) jarritz, mea gordailutzeagatiko eskubideak kobratuz eta abar.

Itsasontziak Muskiz eta Portugaleteko portuetara heltzen ziren mea kargatzeko, baina Galindo, Causo eta Ugartekoak ibai-portuak ziren, beraz, ez zuten behar besteko sako-nera. Hori dela eta, Galindo ibaitik Itsasadarreko portueta-raino gabarren edo zingo txikiko bestelako ontzien bidez garraiatzen zen mea, itsasaldiak onuragarriak zirenean. Ertzetatik, zirgek -emakumeak batez ere- tiratzen zuten gabarretatik.

Portuetako langileei dagokienez, Azaolak esan bezala, 1826an, batez beste, 20 gabarra eta 40 marinel zeuden Galindo eta Ugarteko portuetan mea garaituz. 1851ean, Aldamaren ustetan, 48 gabarra-langile eta 20 meategi-emakume zebiltzan lanean.

Meategietako langileek Enkarterrietatik irteten zen mearen



inguruan lortutako hitzarmen bakoitzeko prezioaren irabaziak lortzen zituzten, baina Enkarterrietako burdinoletara bidalitako mearen lehen ezarritako prezioa baino ez zuten irabazten, baita garraioaren gastua ere, Urrestietako Batzak xedatu bezala.

Portugaletik ere mea ateratzen bazen ere, gabarrak eroateko portu nagusiak Asuakoa (Erandio) eta San Nikolaskoa (Bilbo) ziren. Asuatik barnealdera (Zamudio, Larrabetzu, Mungia eta abar) eroaten zen mea, eta San Nikolastik irteten ziren itsasontziak urruneko lekuetara eramateko.

Itsasontzi gehienok quechemarine eta patatxak ziren batez ere. Eta Gehiengoa Plentzia eta Mundakatik zetorren.

1826an, Azaolak esan bezala, Somorrostro haraneko portuetan, 50 itsasontzi inguru zeuden, eta bakoitzaren edukiera



50etik 700 kintalerakoa zen. 1851n, Aldamak 200 eta 300 bitarteko itsasontzi eta ia 1.000 marinel zenbatu zituen.

Mea trafikorik handiena zuten portuak Hiru Kontzejukoak - Galindokoa batez ere- ziren. Izan ere, XIX. mendearen lehenengo erdialdean, Galindoko portura 200 edo 250 gurdi eta 60 edo 80 mando heltzen ziren; Vausoko portura antzeko mando kopurua heltzen zen, eta Ugartekora, berriz, 100 gurdi eta 200 mando; azkenik, Muskizko portura 60 edo 80 gurdi baino ez ziren heltzen.

1831n, Galindo, Causo eta Ugarteko portuetatik, Jaurerri-
tik kanpora 234.352 kintal mea atera ziren; Muskiztik, ordea, 34.820 baino ez, eta 8.251 kintal eroan zituzten lehorretik Kantabriarantz. Alabaina, Bizkaiko burdinoletan kontsumitzeko, 28.590 kintal baino ez ziren atera. Nahiz eta euskal burdinolen behin betiko krisia hasita egon, mea gordina esportatzea da sektorearen joera, mearik gehiena

86



Erresumara eramaten zen arren.


Mea metatzeko norbanakoen zituzten alde mugatuei portu esaten zieten. Portu bakoitzeko zabalera 10 edo 30 oinekkoa da, eta luzera, berriz, 14tik 50erakoa. 1846an, Ugarten, 225 portu zeuden, eta 61 meategi-jaberi zegozkien. Mea multzoan metatzen da lurrean bertan, uraren alboan, nahiz eta XIX. mendean oinarritzko harrizko kai batzuk eraiki izan.

Meatzaritza jarduera XIX. mendearen erdialdean hazteak beste portu batzuk eraikitzeke eskatu zuen. Agintarien asmoa jarduera osoa pertsona gutxi batzuen esku ez geratzea izan zen, meatzaritza kontzesioekin gertatzen ari zen bezala. Hor-
taz, 1860an, 4 portu gehienez jabe bakoitzari eman zitzaion, baina askok errentan ematen zuten.

Beste alde batetik, portuetara jaitsitako mea ez zen beti kalitate onekoa, eta egoera hori kontrolatzeko, agintariek bisitaldiak egiten zituzten. Ohikoa zen legez, burdin eskaera haztean, mea gehiago garraiatzen saiatzen zen, hori dela medio, kalitatea txikiagoa zen. Horrez gainera, askotan, mea minera-

87





la, ur ondoan zegoenez, busti egiten zen eta hareaz betetzen zen, beraz, astunagoa zen eta kolore hobea lortzen zen, eta erosleak onura gutxiago lortzen zituen.

Halaber, portuetatik eta gabarretatik urtera jausten zen meak kanalak ixten zituen, eta horrek itsasontzien bidea oztopatzen zuen. Agintariek portuetako jabeek eskatzen zieten kanalak garbitzeko, nahiz eta oso gutxitan agindua bete. Portu eta bideak artatzeko, zerga batzuk ezarri ziren, baita mea garraiatzen zutenei eta gabarrakoei, orduan, langileen onurak eskasagoak ziren. 1852an, Galindotik goi mendietara bidea konpontzeko, erabaki egin zuten orga bakoitzak 8 erreale ordaindu behar zuela, eta mandoak, berriz, 2 erreale. Zernahi gisaz, portu eta bideak egoera txarrean egoten ziren, eta egoera hori larriagotu egin zen garraio sistema modernoak indartu ahala.

Meatzaritzak sortutako onurak denek gustukoak ziren, eta elizak bereak portuen erabileragatiko eta garraiatutako meagatiko zerga kobratzeko eskubidea eskatu zuen,



horren ondorioz, Trapagarango agintariekiko auzia sortu zen XVIII. mendean.

Edu bertsuan, mea ustiakuntza hazi zen legez XIX. mendearen erdialdetik, Aldundiak kate batzuk -Urtuella eta Muskizkoak bezalakoak- ezarri zituen, zeinetan handirik maiatzetik urtearen amaierara arte mea garraiatzen pasatzen ziren orgei eta zalditeriei zerga kobratzen zitzairen. 1859an, tarifa horiek 240 errealekoak ziren hagun zabaleko idi-orgentzat, 320 berriz, hagun estukoentzat, 640, "carros bulquetes" deiturikoentzat, 360, "carros volantes" izenekoentzat, eta 10, mandoentzat.

Portuetako gainbehera 1865ean hasi zen hau da, Trianoko trenbidea -aldundiarena- inauguratu zenean. Ugarteko portuak bakarrik eutsi zion jarduerari XIX. mendearen amaiera arte, baina dagoeneko mea ez zen garraiatzen animalien bidez, baizik eta garraiobide modernoagoen bitartez. 1876an, Vitoria, Maruri y Suñol meatzaritza baltzuak Ugarten Galindo ibaitik zetorren kanala eraikitzeke eskatu zuen, eta bi urte geroago jarri zen abian; bertara, airetiko tranbia heltzen zen,

Parcocha meatokitik. Era berean, 1898an, Ugarten, zamalanetarako portua eraikitzeke eskatu zen. Beste portuak abandonaturik gertatu ziren, ohiko garraio jarduera desagertzean.

Aitzinean, nola ateratzen zen burdina? Hemendik ateratzen zena purutasun handia zuen, ezta Xabier?

- Bai, mendi horietako mea sona handikoa zen, puru zelako eta erraz galdatzen zelako. Erabateko fusioa lortzeko, burdinak 1.500° C gainditu behar du, dena den, mendi horietako mea galdatzeko, nahikoa zen 900° C-ra iristea, mea oretsu bihurtzen baitzen, eta erraz lan egiten zen mea horrekin.

Horrez gainera, mea asko zegoen eta erraz erauzten



zenez, hasiera-hasieratik, haizeolak ezarri ziren Triano eta Galdamesko Mendietan. Hortaz, Oiola (Trapagaran) urtegiko ingurumarietan, XI. mendeko galdaketarako labea aurkitu dute. Siderurgia jarduera adierazten duten aztarnak asko dira, zepa multzoak batez ere. Dena dela, burdinola asko ez ziren erabili tresnak fabrikatzeko, mearen ezpurutasunak ezabatzeke lehenengo prozesua gauzatzeko; izan ere, prozesu horren bidez, pisua galtzen zen, eta errazago garraiatzen zen mea, beste toki batzuetara, non berriro tratatzen zen.

Burdinolak tamaina txikiko labeak ziren, eta bertan, mea eta egur-ikatz sartzen zen geruzaka. Sua kitzikatzeko, esku hauspoak eta inguruneko haizea erabiltzen ziren, horregatik, leku haizetsuetan jartzen ziren. Burdinolak lehengaietatik - egurra, egur-ikatz egiteko, eta mea- hurbil eraikitzen ziren. Horren harira, mendi gailurretan eraikitzen ziren burdinolok, gauzak horrela, mendiko burdinolak esaten zieten.



92

Mea galdatu ostean, ore a mailuz -eskuz- jotzen zen, forma emateko eta ezpurutasunak kentzeko. Hala eta guztiz ere, sistema oso oinarritzkoa zenez, eta bero handirik ez zenez lortzen, burdina asko alferrik galtzen zen, baina galera horrek ez zuen garrantzi handirik, mea ugari baitzegoen.

XIV eta XV. mendeetatik aurrera, "burdinola hidraulikoak (zeharrolak) hasi ziren gailentzen, ibaietako behealdeetan. Zeharroletan uraren indarra erabiltzen zen, hauspoei eta mazoari eragiteko, beraz, prozesua errazagoa zen eta produkzioa, berriz, handiagoa.

Halako instalazio asko eraiki ziren Bizkaia eta Gipuzkoan. Lan honetan aztertzen ari garen aldean, besteak beste, Barakaldo, Galdames eta Muskizen, eraiki ziren batzuk Muskiz udalerrian, El Pobal burdinola dugu, Bizkaian martxan egon zen azkenetako bat.

Euskal Herriko burdinoletan fabrikatutako tresnak (armak,



93

aingurak, lanabesak, iltzeak eta abar) ez ziren tokiko merkaturia hornitzeko erabiltzen bakarrik, baizik eta Europara eta Amerikako kolonietara esportatzeko ere. Horren ondorioz, esan dezakegu burdinaren merkataritzak betidanik izan duela garrantzi izugarria euskal ekonomiarentzat. Hartara, industria

hori babesteko asmoz, Foruan ezarritakoaren arabera, atzerri-
ra burdina landua edo erdi lan-
dua (barra edo totxotan) baino
ezin zen esportatu, baina ez
mea gordina.

XVII. mendeko krisialdiak era-
gina izan zuen burdinaren mer-
kataritzan ere. Horrez gainera,
burdinolek lehiakortasuna



galdu zuten, euren instalazioak modernizatu ez zituztelako, eta burdina merkeagoen -Suediakoak eta Errusiakoak-lehia jasan behar izan zuten. XVIII. mendean, euskal siderurgia indarberritu zen, baita burdinolarik gehienak totxoaren lantzean espezializatu ziren, produktu landuen fabrikazioa alde batera utzita.

Horrezaz gain, Europan, produkzioa handitzea ahalbidetzen zuten aurrerapen teknikoak (labe garaiak, harrikatza, eta abar) gauzatzen ari zirenez, ez zen beharrezkoa mea hain purua erabiltzea. Berrikuntza horiek oso gutxitan erabiltzen ziren euskal siderurgian; izan ere, kalitate handiko tokiko meari esker, euskal siderurgiak oinarritzko teknika zuen.

Modernizazio saiakera gutxi batzuk egin ziren, eta eureta-ko bat Barakaldon XVIII. mendearen amaieran fanderia bi eraikitzea izan zen, nahiz eta sistema hori Europan XVI. mendetik aurrera erabili izan. Fanderietan, burdina trinkotzez ijetzi eta mozten zen, hidraulikoki eragiten ziren zilindro batzuek bidez. Halaber, dirdiratze labeak erabiltzen ziren, zeinetan erreketak eta galdaketa banatzen ziren, beraz, Asturias eta Ingalaterratik ekarritako harrikatza erabili zitekeen.

Hala ere, euskal siderurgia tradizionalaren gainbehera geldiezina zen. XVIII. mendearen amaieran, behin betiko krisia dela eta, burdinolarik gehienak itxi ziren XIX. mendearen lehenengo erdialdean.

- Zein interesgarria! XIX. mendearen amaieran lehenengo meatzariak zituzten lan-baldintzei buruz hitz egin.



- Bai, meatokietako lana nekeza eta arriskutsua zenez, eta XIX. mendeko amaierako lan baldintzak oso gogorak zirenez, meatzarien oinazea handitu zen.

Batetik, lansaioa oso luzea zen. Ustiakuntza handiaren hastapenean, gauek goizera lan egiten zuten. Poliki-poliki arautu ziren lan baldintzak, baina lanorduak gehiegi ziren artean. Laurogeiko hamarkadan, goizeko bostetatik gauera arte lan egiten zuten.

Logikoa denez, langileen protestaldiek eragin zuten lansaioa murriztea. 1890eko meatzari grebatik aurrera, lansaioa hamar ordukoa izan zen (hamaika udan, eta bederatzi, aldiz, neguan), eta 1910eko grebaren ostean, bederatzi ordu eta erdikoa.



Lehen aipatu greben ondoren ezarritako lansaioa urtaroen ezaugarrien arabera izan zen. 1904an, udan, goizeko bostetatik arratsaldeko seietara lan egiten zuten; udaberrian eta udazkenean, seietatik seietara, eta neguan, oster, 6:45etik 5:15era. Neguan, ordu erdiko geldialdia egiten zuten gosaltzeko, eta ordubeteko, aldiz bazkaltzeko; gainerako urtarotan, alabaina, ordu eta erdikoa, bazkaltzeko.



Laurogeiko hamarkadan, somara lan egiteko moduak hasi ziren sartzen, eta meatokietan ataza deitu zieten. Ataza zehatz bat esleitzen zitzaion hiruzpalau langileko talde bati; egunean meatzari bakoitzak hiru bagoitxo mineral kargatu behar zuen, eta bagoitxo horien edukiera 2 edo 2,5 tonakoa zen. Lan horrengatik lehen ezarritako ordainsaria ematen zieten. Ataza hori amaitu eta gero, langileak joan zitezkeen, edo, nahi izanez gero, eguneroko lanari ekin ziezaioketen, eta ordainsari osagarria jasoko lukete.

Ataza hori egiteak lansaioa murriztea zekarren, arratseko hiru-retan amaitu ohi baitzuten, beraz, zazpi ordu eta erdietatik zortzi ordutara lan egin ohi zuten. Nolanahi ere, langilerik gehienek lanean segitzen zuten meatokiko beharretan, lansaioa amaitu arte. Sistema horren bidez, beharginen errendimendua gehitzen zen. Kalkuluen arabera, ordainsariaren truk



lan egiten zuten langileen eguneko lana bagoitxoaren hiru laurdenak bakarrik kargatzea zen; somara lan egiten zutenek, ordera, hiru bagoitxo osorik betetzen zituzten. Patroiarentzat abantaila handia zen, baina meatzariarentzat, leher egin arte lan egiteko modua zen, gauzak horrela, kritika zorrotzak egin zituzten, baita langile mugimendutik urrun zeuden pertsonak ere.

Meatzarien iritziari dagokionez, lan mota horren inguruko aburu desberdinak zituzten. 1890eko greban eta ondorengo gatazketan, aldarrikapenetako bat mota horretako lana ezabatzea izan zen. Baina 1906an, Franco-Belgak lan mota hori ezabatu nahi izan zuenean, langileek kontra egin zuten, eta prentsa sozialistak onartu behar izan zuen meatzari asko sistema horren aldekoak zirela, eta sozialista asko aldarrikapen hori albo batera uzten hasi ziren. 1910ean, ordainsariaren truk lan egiten zuten langileen %25 kaleratu zutenean, ez zen inolako protestarik antolatu.

Meatzariak sistema hori nahiago zuten gehiago irabazten zutelako, lehertu arte lan egiten zuten arren. Ugazabek nahiago zuten molde hori, produktibitatea gehit-



zen zelako. Hartara, XX. mendeko 40ko hamarkadan, peoirik gehienek somara lan egiten zuten. Eta berori 1963ko Gerraren ondoriozko egoera politikoaren eraginez, langileek pairatu behar izan zituen eskubide murrizketen beste atal bat besterik ez zen izan. Ezin dugu ahaztu ez bazuten ataza amaitzen, ez zutela kobratzen, eta horrela askoz gehiago eska ziezaieketen.

Meatokitian kobratzen ziren soldatei dagokienez, azpimarraitu behar da pizgarriak izan zirela, nekazaritza eremuetatik lan esku ugari erakartzeko. Lan horrek -jaiotzen ari ziren industrietan bezala- diru-sarrera erregularrez gain, landako soldat bano ordainsari handiagoak kobratzeko aukera eskaintzen zuen. 1880tik 1895era, meatokitako batez besteko jorнала 2,75etik e pezetara artekoa zen, eta 3,25etik 3,30era



arteko pezetakoa, berriz, 1898tik 1912-14ra arteko tartean. Lurpeko meatokietan lan egiten zuten meatzariak %5etik %12ra arte gehiago kobratzen zuten. Nekazaritza eremue-tako soldatei dagokienez, ezberdintasuna nabaria zen: 1900. urtetik 1910era, nekazari jornalariak 1 edo 1,50 pezeta baino ez zuten kobratzen. Dena dela, beste lan bat-zuetako jornalak, industriakoak, meatokietakoak baino handiagoak ziren.

Emakumeek ere lan egiten zuten, mea garbitokietan batez ere, baina laguntzaileek baino gutxiago kobratu ohi zuten.

- Niri esango didazu, Xabier! –adierazi zuen Angelese.

-Bai. Jarraituko dut. Oro har, meatzariak lan egiten zuen eguna baino ez zuten kobratzen. Gaixorik zeudenean edo istripuren bat izan zutenean, ez zuten soldatarik jasotzen.

Gaixotasun eta izurriteak oso ahikoak ziren, hotza, hezeta-suna eta kalitate eskaseko arropa urria dela eta; horrez

100



101

AZKEN EMAKUME MEATZARIA

gainera, txarto elikatutako pertsonak oso ahul zeuden, higie-neia eskasa zen, eta meatzarien bizi baldintzak, oso kaska-rak.

Istripu ugari gertatzen ziren ondoko arrazoiak direla eta: lur eta harri erorketak, kontrolik gabeko leherketak, bagoitxo-en harrapaketak edo errailetik ateratzea eta abar.

Euria zenean ezin zen lanik egin, meatokia urez betetzen zelako, lur jauzien arriskua handiagoa zelako edo zein zelako dinamita jarri. Lanak elurra zenean eteten ziren. Hortaz, egu-raldi txarra dela eta, soldata egun asko galtzen ziren. Batzue-tan, euria zenean, lan batzuk egiten ziren, barbarako, bagoit-xoak kargatzea. Kasu horietan, babes bakar gisa, buruan zaku bat edo batzuk jantzten zituzten, eta batzuetan, mundru-nez bustitzen zituzten zakuok.



Meatzaritza lanaren ezaugarriak direla bide, familia kide guztiek lan egin behar zuten oinarritzko beharrezane aurre egiteko.

- Zeintzuk ziren meatzarien bizi-baldintzak?

- Meatokietara etorkin oldeak erabat eraldatu zuen eskualde horretako errealitatea.

Trapagaranen, 1860an, 798 biztanle zeuden, eta 1897an, 6.948. 1877 eta 1897 bitartean, biztanleak zazpi aldiz gehiago ziren.

Hasieran, Bizkaiko eta Euskal Herriko herrietatik, Haztela-tik (Burgostik batez ere), Santanderetik eta abarretik etorri ziren. Geroago, urrunagotik etorri ziren, adibidez, Galizia-tik.

Matamorosen, 1884an, etorkin gehienak Burgostik eta



Gaztelako gainerako probintzieta-tik etorritakoak ziren, galiziarak, ordea, %1 baino gutxiago ziren.

Etorkinik gehienak XIX. mendea-ren amaieran heldu ziren. 90eko hamarkada-dako bigarren erdialdean, burdin hazkundea ez zen aurrerapen teknikoaren sarre-raren ondorioa, lan eskuaren haz-kundearen ondo-rioia baino. Hor-taz, 1888tik

1897ra, eta bereziki, 1895, 1896 eta 1897. urteetan, etengabe etorri ziren etorkinak. Migrazio fluxuen ondorioz, XX. mendea-ren hasieran, biztanlerik gehienak ez ziren Euskal Herrikoak.

- Lan egiteko asmoarekin heltzen ziren etorkinak, aldi batera-ko edo betiko etortzen ziren?

- Urte horietako immigrazioaren barruan, bi mota bereiz daite-ke: aldi baterakoa eta behin betikoa. Aldi zehatz baterako immigrazioa sasoikakoena edo ibiltariena zen. Langileok mea-tokietara etortzen ziren eta uztaroan itzultzen ziren euren jato-



ria. Langile horiek asko ziren, eta berezko ezau-garriak zituzten, langile finkoen aldean, norbanako eta gizoneko immigrazioa baitzen, eta senideak herrian uzten zituztelako meatokietara lan egitera joateko, anitz ezkongabeak izan arren.

Behin betiko etorkienek familia osoa ekartzen zuten. Halaber, jatorrien artean desberdintasunak egon bazen, izan ere, hurbiletatik etortzen zirenean, familiarekin etortzen ziren, baina urrundik heltzen zirenean, bakar-



bakarrik etortzen ziren. Batzuetan, lehenengo eta behin, gizonak etortzen ziren, eta lekuren bat aurkitzen zutenean edo diru apur bat biltzen zutenean, gainerako senitartekoak etortzen ziren.

- Arazoak egon ziren hainbeste langileen etorrerarekin?

Bai, demografi hazkunde neurrigaberen eta meatokiak biztanle guneetatik urrun egotearen ondorioz, azpiegitura eskasa zen, meatzari guztiak hartu ahal izateko.

Egoera horri aurre egin ahal izateko, meatzaritza baltzuek barrakoiak edo kuartelak eraiki zituzten. Nabe bakarreko egurrezko eraikin luzeak izaten ziren, non meatzariak pilatuta bizi ziren. Barrakoietan, batez beste, 40 edo 50 gizon ziren, baina Matamorosko batean, 250 gizon bizi ei ziren. Baltzuek gizonak barrakoietan bizitzera behartzen zituzten eta, horren truk, soldataren zati bat deskontatzen zieten. Egondialdiaren eguneko prezioa 0,25 pezetakoa zen.

Oheak parketaren antzeko zoruaren gaineko oholak ziren. Batzuetan, koltxoi gisa, arto edo iratzeko hosto lehorrez betetako zakuak erabiltzen zituzten. Oheak konpartitu ohi ziren, eta "ohe bakoitzean bi lagunek lo egiten zuten", 1894an, La Arboledako Guardia Zibilaren sarjentuak azaldu bezala. Lo egiteko sistema horri "ohe beroko sistema" esaten zioten. Hortaz, pilaketa izugarria zen.

- Meatzarien higiene egoera oso txarra izango zen!

- Bai, higiene egoera oso txarra zen, barrakoiek ez zutelako aireztatze sistemarik, meatzariak jakiak bertan prestatzen zituztelako, ohe gehiegi zegoelako, komunik ez zegoelako eta abar. Horrek guztiak gaixotasunak eta izurriteak ugaltzea ekarri zuen.

- Meatzarien barrakoen alboan, kantina famatu horiek zeuden, ez?

Bai, barrakoiekin batera, derrigorrezko kantina edo dendak ezarri ziren, non langile-burua edo horren senideren bat



arduradunak ziren, eta meatzariak erosi behar zuten, soldataren zati bat deskontatuz. Konponbide hori egokia zen dirudie-nez, sasoikakoentzat, aldi baterako etortzen zirelako eta, amaitzean, euren jatorrira itzultzen zirelako. Hilean behin kobratzen zen, eta derrigorrezko kantinen sistema kreditu moduko zerbait zen. Hala ere, denda horiek izen hori zuten meatzariak lan egin gura bazuten, bertan erosi behar zutelako, horratik, prezioak izugarri garestiak ziren, eta produktuak egoera txarrean zeuden. Horren ondorenez, meatzariak ez zuen ezer kobratzen, kantinako fakturak soldata gainditu ohi zuelako, batez ere, gaixotasuna, istripuak edo eguraldi txarra direla eta, lan gutxi egiten zuten hilabeteetan.

Soldata hilea amaitutakoan kobratzen zenez, zorretan erostea ezinbestekoa zen, hori dela bide, langileen aldarrikapenetako bat asteen edo hamabostaldian kobratzea zen. Lantzean behin, meatzaritzak aurrerapen bat eskatzen zuen, eta kontrariaren txartelak ematen zizkioten, eta geroago, soldatatik





deskontatzen zioten korritu gehigarri batekin.

- Etxebizitarik ez zeudenez, meategi konpainiak haien langileentzat etxeak eraiki zituzten, ez?

- Bai, etxebizitarik eza eta, lan eskuko beharra asetzeko asmoz, etorkinak etengabe eta oldeka etortzea direla eta, baltzuek etxeak eraiki zituzten enplegatuentzat. Eraikin luzeak izaten ziren, bi solairukoak, eta elkarri atxikitako etxebizitzetaz osatuak. Batzuetan, goiko solairua kanpoaldeko eskaileratik igotzen zen. Zenbaitetan, behealdean bizi ziren langileburuak euren familiekin, eta gainaldeko solairua, berriz, konfiantzazko meatzariei alokatzen zieten.

Langile batzuek euren etxeak eraiki zituzten eta familiekin bizi ziren bertan. Eraiki ere, era desordenatuan eraikitzen ziren, eta kalitate txarreko materialez. Modu horretara, mendian zehar, eraikin bakarti batzuk hedatzen hasi ziren, gehienak behin-behinekoak ziren. 70eko hamarkadan eraikitzen hasi ziren txaboletatik sortu ziren lehenengo meatzari auzoak, La Arboleda esaterako.



Berehala hasi ziren sortzen baltzu bakoitzeko meatzaritza ustategien inguruko errebalak.

Jazokizun horrek ere eragina izan zuen herri tradizionaletan, ze neurri gabe hazi ziren, etorkinak oldeka heldu zirenean. Egoera horrek desoreka ugari ekarri zuen, eta etorkinak ez iren benetan integratu betiko biztanleen artean, meatzaritza auzoak urrun zeudelako eta bi erkidegoen arteko gizarte eta kultur desberdintasunak oso handiak zirelako.

Etxeak meatokietatik ahalik eta hurbilen eraikitzen zirenez, meatzaritza lanak oztopa zitezkeen. Egoera hori arautzeko, 1882an, langileentzako etxeak eraikitzeko aldeak mugatu ziren, baina, baltzuek leku horiek behar zituztenean, jabeek joan behar zuten handik inolako kalte-ordainik jaso gabe.

Baldintza horiek direla bide, eraikinak ez ziren sendoak eta erraz desmuntatzen ziren (egurra, lur zokorrak eta abar),



gehiegi ez inbertitzeko eta materialak beste leku batera eroan ahal izateko. Etxe gutxi zeudenez, haitzuloetan bizi ziren edo beste erabilera batzuetarako, kortarako, gaitutako instalazioak egokitzen zituzten etxebizitzak eraikitzeke.

- Nolakoak ziren bizi-baldintzak meatzarien etxebizitzetan?

Meatzarien etxebizitzaren egoera oso txarra zen, hau da, etxeak txikiak ziren, ez zegoen ia aireztapenik, eta jende larregi bizi zen etxe txikerrotan. Etxe berean, familia batzuk bizi ohi ziren, eraikin gutxi zeudelako eta gastuak elkar banatzen zituztelako. Kontuan hartu behar da famili ugariak zirela, bada, gela bakoitzean bizi zen kide kopurua oso oso handia zen.

110

Egoera hori larriagotu egin zen, meatzarien familiarik gehienek euren etxeetan beste langile batzuk -ostatuan hartutakoak, apopiloak, kanpotarrak edo maizterrak- hartzen zituztelako. Izan ere, apopilook errenta ordaintzen



111

zuten, loa hartzeko lekuaren edo beste zerbitzu batzuen (janaria, garbiketa eta abar) truk. Diru-sarrerara horiek funtsezkoak ziren familiarentzat, beraz, apopilo batzuk hartzen zituzten. Hortaz, jende asko bizi zenez gela berean, eta etxeak, auzuneak, ez zirenez batere garbiak (ez zegoen ez estolderiarik ez komunik, edateko ura ez zegoen egoera onean, zaborra pilatzen zn eta abar), infekzioak eta izurriteak etengabe zabaltzen ziren.

Sasoikako meatzariak familia horiekin edo barrakoietan bizi ohi ziren. XIX. mendearen amaieran, sasoikakoak meatzaritza biztanleen %65 ziren, baina kopurua gutxituz joan zen, burdin meategiak, agortu ahala. Horrez aparte, gehienok ezkongabeak ziren, lana oso gogorra zenez, ia-ia guztiak oso gazteak ziren eta ez zuten familiarik sortu izan.

Apopilook eragindako diru-sarrerak funtsezkoak ziren familiarientzat, egunean lortzen baitzuten soldata txikiari gehitzeko gehigarria, eta meatokian lanik egin ezin ziren egunak kon-



pentsatzen zituztelako. Hartara, hilabete askotan, emazteak lortutakoa, gizonak erdietsitakoa baino gehiago zen.

1903an, meatzariaren hileko aurrekontua 66 pezetakoa zen; 48 pezeta jakiak erosteko erabiltzen ziren, eta 10 berriz, etxebizitzarako. Hortaz, oinarritzko beharrianek aurre egiteko beste irabazi arren, oso gutxi geratzen zitzairen, eta beste modu batzuetara lortu behar zituzten diru-sarrerak.

Esan daiteke meatzarien familiek oinarritzko beharrianak asetzen zituztela, baldin eta familia kide guztiek sosak ekartzen bazituzten, alokairu bakarra ez baitzen nahikoa. Edozein gorabeherak -gaixotasunen bat- biziraupenaren oreka zail hori apurtzen zuen. Horrez gainera, soldaten igoera ez zetorren bat prezioen igoerarekin, eta meatzariak beti bizi behar zuten kili-kolo.

1887an, familien %17,5 baino ezin zen bizi ito barik familia buruaren soldatari esker. Aitzitik, 1900 eta 1913 bitartean, %11ra jaitsi zen.

- Nolakoa zen meatzarien elikadura?

- Oso eskasa. Askotan, elikadura ez zen aski lan gogorrari aurre egiteko, eta ez zen batere osasungarria, eta horri usadio kaltegarri batzuk gehitzen badizkiogu -alkohol gehiegi edatea, esaterako-, meatzarien osasuna oso eskasa zela esan dezakegu.

Gizarte Erreformen Institutuaren arabera, 1903an, meatzariaren eguneko anoa ondokoa zen: ogia (1 kg), zezina (0,100 kg), urdaia (0,133 kg), lekaleak (0,66 kg), patatak (1,66 kg), ardoa (1 txopin) eta pattarra (1 edo 2 kopa). Bat-



zuetan, sardinak eta bakailaoa jaten zuten ere.

Sarritan, lanera joan baino lehen, bat edo bi kopa pattar, uxuala edo kaña (rona uraz nahasia) -carraqui izenekoak- hartzen zuten. La Arboledan, etxeko likoreak egin ziren. Botikan, papertxo edo azal batzuk erosten zituzten; horien edukia 90°ko alkoholean egosten zen, eta emaitza char izeneko edaria zen, zeina uneoro edaten zen.

Bizi baldintza txarren ondorioz, bereziki, gastroenteritisen, gaixotasun infekziosoen eta abarren ondorenez, meatzarien heriotza-tasa oso handia zen, haurrena batez ere. Izurriteek -kolera, baztanga edo tifusa- larriagotu zuten egoera.

Lan baldintzek eragin handia izan zuten meatzarien osasunean. Gaitzik ohikoenak hazteria, gripea, eta bronkitisa ziren,

eguraldi txarraren ondoriozkoak, egun osoan egoten zire-lako aire zabalean. Horrez gainera, istripu ugari gertatzen ziren, alegia: garraibideen ondoriozkoak (errailetatik ateratzea, harrapaketak eta abar), harriak edo lurra jaustea, txarto egindako leherketak, meatzari askoren eskarmenturik eza -batez ere, sasoikakoena- eta abar.

Kariok direla eta, XIX. mendearen amaieran, meatzaritza auzoetako hurrek jaiotzean zuten bizi-itxaropena hogeitertekoa zen.

- Neurriak hartu ziren egoera penagarri hau arintzeko?

- Bai. Egoera larri hori kontuan izanda, meatze aldeko biztanleen osasuna hobetzeko erabakiak hasi ziren hartzen. Hasieran, izurri gaixotasunen hedapenari aurre egiteko, egurrezko barrakoiak instalatu ziren gaixoak hartzeko. Halaber, sorospen etxeak eraiki ziren meatokietan, istripuak jasandako langileei arreta eskaintzeko, baina etxe horietako baldintzak ez ziren oso onak. 1880ko amaieran, meatokietako jabe batzuek -tartean garrantzitsuenak- Meatzaritza Ospitaletarako Elkarte sortu zuten. Elkarte horren helburua meatze aldean ospitale batzuk eraikitzea zen, baina ez modu altruistan, izan ere, langileei jornalaren %2 eskatu zitzaaien osasun instalazioak artatu ahal izateko, hau da, meatzariak ekarritako kapitala ugazabek ipinitakoa baino gehiago izan zen. Meatzarien kexuak direla eta, deskontua desagertu zen, baina, aldi berean, prestazioak murriztu ziren.

1880. urtean, Gallartan ospitale nagusia eraiki zen, Triano-ko Ospitalea. Horrez geroztik, eta ospitale horri laguntza emateko, sorospen etxe bi instalatu ziren Matamoros (La



Arboleda) eta El Cercon (Galdames); eta etxeok 1896an ospitale bihurtu ziren, nahiz eta kasurik larrienak Gallartara eroan. 1930ean, meatzaritza ospitaleek medikuntza zerbitzuak emateari utzi zioten. Nolanahi ere, azpimarratu behar da Enrique Areilzak zuzendutako ospitaleetako aurrerapen teknikoak eta osasun laguntza maila onekoak zirela.

- Meatzaldean sortu zen langile mugimenduaren garapenari buruz hitz egin.

- Ongi, Esango dizudana, lan baldintza txarrak eta bizi-kalitate negargarria izan zirela meatze alde osoan langile mugimendu indartsua garatzeko arrazoi nagusiak, eta mugimendu horrek langile elkarte sozialistak sortu zituen. 1886an, Abanto-Zierbenakoa sortu zen; 1887an, Urtuellakoa; eta 1888an, berriz, La Arboleda. Dena den, elkarteok oso astiro garatu ziren politika orokorrari dagokionez mobilizaziorik eza nagusi



zelako, meatzaririk gehienak sasoikakoak zirelako, eta beraz, meatzariok ez zutelako parte hartzen mobilizazioetan.

Poliki-poliki langileen ordezkariak udaletara heldu ziren, hala ere, gutxi ziren bertara iritsi zirenak, meatzaririk gehienak sasoikakoak zirenez eta erroldaturik ez zeudenez, ezin zutelako botorik eman. Ugazabek ere kargatu politikoak betetzen zituzten, euren enplegatuentzako lanpostuak topatzen zituzten udal korporazioetan eta mota guztietako

presioak erabiltzen zituzten meatokiak ustiatzeko orduan abantailak lortzeko.

Langile mugimenduari eta ideia marxistei



aurre egiteko, ugazabek beste mota bateko elkarteak sustatu zituzten. Halaz ere, elkarte horien arrakasta txikia izan zen, afiliatuei bistako abantailak eskaintzen zizkieten arren: gaixotasun edo istripuengatiko diru-laguntzak, doako medikuntza edo botika zerbitzuak, kontratuak lortzeko lehenetasuna eta abar.

Ugazabek sustatutako elkartearen artean, ideia kristauak zituztenak zeuden, eta ondokoak ziren euren helburuak: lan pastoral eta hezkuntza eginkizunak betetzea eta langileen lan baldintzak hobetzeko aldarrikapenak egitea. 1906an, La Arboledan, Asociación Católica León XIII sortu zen. Halaber, Urtueilla eta Gallartan sortu ziren zentro katolikoak.

Negoiazioak porrot egiten zuenean, presionatzeko modua greba zen, horratik, meatze aldean Estatuko lehenengo langile mobilizazioak gauzatu ziren. Greba zatikakoa (baltzu bereko meatoki batean edo batzuetan) edo orokorra zein langile sektore zehatz batekoa izan zitekeen.

- Zer esan dezakezu 1890. urtean meatzariak egin zuten greba orokorrari buruz?

- 1890eko greba orokorra garrantzitsuena izan zen, eta Estatu osoko lehenengo lan gatazkatzat har daiteke. Horrez gainera, mobilizazio horrek ondorengo mobilizazioen bide berriak urratu zituen. Mobilizaziootako ezaugarriak honakoak izan



ziren: txarto antolatu ziren, bortizkeria erabili zuten (triskantzak meatzaritza instalazioetan, liskarrak ordena publiko indarrekin eta abar); eta fabriketako langileekiko batasuna lortu nahi izan zituzten, indarrak batzeko eta denok batera, Bilbora manifestazioak egiteko. Hori dela medio, kale istilu franko gertatzen ziren, eta armada etorri ohi zen langile mugimendua itoartzeko. Aitzitik, langileen borroka zapaltzera etortzen ziren jeneralek bizi-baldintza penagariak ikusten zituztenean, beharginen eta ugazaben arteko tartekaritza lana betetzen zuten, hobekuntza jakin batzuk lortzeko. Hortaz, 1890eko maiatzaren 17an, meatzaritza baltzuek "Loma jeneralaren ituna" sinatu zuten. Egin-eginean ere, itun horren arabera, derrigorrezko kantinak eta barrakoiak desagertu ziren eta hamar orduko batez besteko lansaioa ezarri zen.

Horrez geroztik, meatzariak uste zuten aldarrikapenak lortzeko modu bakarra greba zela, baina antolakuntzarik ezak langile mugimenduaren garapena galgatu zuen, eta mobilizazioek indarra galdu zuten. Baltzuek gainbehera hori aprobetxatu zuten, ez zuten ituna errespetatu eta langile elkarteetako meatzari asko kanporatu zituzten. 1903an ere greba orokorraren aldarrikapen nagusia itun hori betearaztea zen, ze artean, derrigorrezko kantinak eta barrakoiak erabiltzen ziren eta dendetan saltzen zizkieten elikagaien kalitatea ezin txarragoa zen. Greba horretan, meatzariak soldata asteen edo hamabostean kobratzeko eskatzen zuten eta ez, ordea, hilean, maileguen pentzutan ez bizitzeko, ze askotan hilea amaitu eta 20 egunera kobratzen omen zuten. Meatze aldean kokatutako merkataritza gunek ere salatu egin zuten langileek ez zutela askatasunik, nahi zuten lekuetan erosteko.



Egoera oso gatazkatsua zenez, maiz egin behar izan zuten greba. Greba orokorren artean, lehen aipatutako 1890ko greba eta 1892an arrakasta handirik lortu ez zuen grebaz gainera, 1903, 1906, 1910 eta 1911koa dira azpimarratzekoak. 1910etik 1914ra arte gertatu ziren inoizkako lan liskarrik handienak, hau da, meatokietako zatikako greba eta lanuzteen hazkundera itzela izan zen.

- Zer lortu zuten meatzariak greba hauekin?

- Meatzariak hobekuntza batzuk lortu zituzten, baita langile mugimendua gizarte eta politika indar gisa sendotzea ere, baina mugimendua zatitu egin zen, erradikalen eta negoziatzaileen aldekoen artean. Azken horien ustez, greba batzuen -1911koa esaterako- antolakuntzarik ezak ondore negatiboak ekarri zituen langileentzat; horrez gainera, ugazabek behin eta berriz uko egiten zioten negoziatzeari grebek zirauten bitartean, baina hobekuntza batzuk gauzatzen hasi ziren, alegia, ekonomatoak, enplegatuentzako etxeak, eskolak eta

abar. Esanak esan, 1915etik, sozialistek erabaki zuten negoziazio eta hitzarmen bideari eustea, politikan aktiboki parte hartzea eta zuzeneko borroka metodoak -greba orokorrak adibidez- bertan behera uztea. Hori dela bide, buruzagi sozialista karismatikoenetako bat eta meatze aldeko alderdi komunistako bultzatzaileetako bat, Facundo Perezagua, kanporatu zuten.

Tentsiook langile mugimendu eta mugimendu sindikalaren berrantolaketa ekarri zuten, beraz, meatzarien elkarteek indarra galdu zuten, eta beste lanbide batzuetakoak, ordea, indartu ziren. Nagusitasun sindikala elkarte metalurgikoen eskura igaro zen, ondorenez, fabriketako sektoreak -ordura arte, meatze aldeko jazokizun eta erabakien menpekoea izan zen- berezko indarra hartu zuen, meatzaritza ustiakuntzaren gainbehera hasita zegoelako eta gero eta meatzari gutxiago zeudelako.

- Zein urteetan bizi izan zuten meategiak haien urrezko garaia?



- Meategiak eskala handian ustiatzeko urrezko garaiak 1876tik 1914. urtera artekoak izan ziren; hala ere, gorabeherak izan arren, jarduera horrek XX. mendeko hogeita hamarreko hamarkadara arte iraun zuen. Lehen aipatutako urte horie-



tatik aurrera, aitzitik, gainbehera etengabea izan zen, nahiz eta 70eko hamarkadaren amaieratik neurri batean berreskuratu.

1876tik aurrera, erauzitako mineral bolumenaren zifrak izugarriak eta imajinaezinak izan ziren. Kalkuluak egitea oso zaila bada ere, antzinako meategietako urteko batez besteko produkzioa 10.000 tonakoa zen. XIX. mendeko 70eko hamarkadan, 500.000 tona lortu ziren dagoeneko, eta 80ko hamarkadan, berriz, 3 edo 4 milioi tona. Kopururik handiena laurogeita hamarreko hamarkadan erdietsi zen, hau da, produk-



zioa 4 eta 6 milioi tona bitartekoa izan zen; eta 1899an, Bizkaiko meatokietako historia osoan lortu den mineral kopururik handiena erdietsi: 6,5 milioi tona.

Somorrostroko meatzaritza barrutiak -Triano eta Matamorosko masak biltzen zituen- Bizkaiko produkzio orokorren mea kantitaterik handiena eskaini zuen. 1886an, Bizkaian erauzitako burdinaren %90 barruti horretakoa zen.

Produkzioaren zatirik handiena esportatzen zen, nazioarteko eskaria, kalitate oneko eskaria, erdiragarria zelako eta baltzu nagusiak atzerrikoak zirelako, besteak beste, orconera eta Franco-Belga. 1878 eta 1900 bitartean, lortu ziren 93 milioi tonetatik, 82 milioi atzerriko merkatura igorri ziren, bereziki Britainia Handira, Alemaniara eta frantziara, hurrenkera horretan.



- Noiz hasi zen euskal siderurgia modernoa garatzen?

- XIX. mendeko erdialdean, burdinolen gainbeheren ondoren hasi zen garatzen euskal siderurgia modernoa. Hortaz, 1848an, Boluetako (Bilbo) Santa Ana enpresan martxan jarri zen Bizkaiko lehenengo labe garaia, baina 1847rako, meatzaritza ugazaba garrantzitsu batzuek -Ybarra, Mier y Com-



pañía- dagoeneko zuten instalaturik beste bat Guriezoko (Kantabria) Nuestra señora de la Merced fabrikan. 1854an, Ibarra familiak Nuestra Señora del Carmen (Barakaldo) sortu zuen, eta 1882an, Nuestra señora de la Merced fabrikarekin egin zuen bat, Altos Hornos y Fábricas de Hierro y Acero de Bilbao sortzeko. Fabrika hori sistema modernoena hasi zen erabiltzen, hala nola, Bessemer bihurtailuak 1886an.

1882an, meatzaritzarekin lotutako enpresaburuek, Víctor Chávarri eta Pedro Gandarias Tartean, Sociedad Anónima de Metalurgia y Construcciones La Vizcaya sortu zuten La Benedictan (Sestao), eta horren ondoren, 1887an, Goitia eta Echevarriak La Iberia sortu zuten, latorria fabrikatzeko. Galdamesko trenbidearen meatzaritza-enpresa jabeak Sestaoko La Mudela eraiki zuen, totxoa ekoizteko, eta 1879an, Martínez de las Rivas jaunaren -beste meatzaritza-enpresaburu bat eta Astilleros del Nervión (1888) enpresaren sortzailea- esku- ra igaro zen.

1902an, Bizkaiko Labe Garaiak edo Altos Hornos de Vizcaya (AHV) sortu zen Altos Hornos y Fábricas de Hierro y Acero de Bilbao, La Vizcaya eta La Iberia batzeari esker, eta arin bihurtu zen industri garapenaren ikur. Modu horretara, XX. mendea aurreratu ahala, gero eta mineral gehiago erabiltzen zen enpresa hori hornitzeko, gero eta gutxiago esportatzen zelako eta siderurgi produkzioa gero eta handiagoa zelako, beraz, minerala inportatu behar izan zuten.

- Noiztik gutxitzen hasi zen ateratzen zen burdinazko minerala?

- XX. mendearen hasieratik, erauzitako mineral bolumena arian-arian jaitsi zen. Beheranzko joera 1907an areagotu zen. Lehenengo Mundu Gerrak atzerriko merkatu tradizionalak ixtea ekarri zuen, beraz, produkzioa jaitsi zen, ze euskal meatzaritza esportazioaren menpekoa zen oso. Nahiz eta gerra hori amaitzean, produkzioa bere onera itzuli, joera beheranzkoa zen, Europako siderurgiak - Ingalaterra eta Alemaniakoa batez ere - altzairua ekoizteko beste sistema batzuk erabiltzen ari zirelako, eta sistemok ez zuten behar posporo gutxi zuen burdinarik. Hartara, euskal mineralak beste herri batzuetako -Suedia,



Algeria eta abar- lehia pairatu behar izan zuen.

Gerra Zibila (1936-1939) amaitu eta gero, urtean, milioi tona baino gutxiago ekoizten zen, eta 50eko hamarkadatik aurrera, berriro gaintitu zen zertxobait kopuru hori. 40ko hamarkadatik aurrera, barneko kontsumorako erabiltzen zen minerala esportatzen zena baino gehiago zen. Eta 60ko hamarkadatik aitzinera, ez zen mineralik esportatzen, eta Bizkaiko Labe Garaiak enpresa baino ez zen hornitzen.

Produkzioa beheragotu zenez, meatzari gutxiago behar ziren, eta asko euren jaioterrietara itzuli ziren, eta beste batzuk Itsasadarreko ibarretako fabriketan hasi ziren lanean. Horren ondorioz, meatzaritza auzo ugari jendez hustu ziren, eta batzuk desagertu egin ziren, batez ere mendi gainaldetakoak.

1967an, minerala ustiatzeari utzi zioten, eta 1968ko urtarilaren 19an, Agruminsa eratu zuten Bizkaiko Labe Garaietako



filial gisa. Orconera y Franco-Belga baltzuetako ustategiek batik bat osatu zuten enpresa hori. Hortaz, meatzaritza kontzentrazioko prozesua burutu zen, etekin onargarriak lortzeko asmoz. Horri eskerrak, 1978an, bi milioi tona ekoitzi ziren lehenengoz 1930etik. Mineral gehiago erauzi zen arren, instalazioetako mekanizazioaren ondorioz, meatzaritza hondar-jarduera bilakatu zen eskualdeko biztanleentzat.

Matamorosen, 80ko hamarkadara arte eutsi zioten meatzaritzari, hau da, antzinako hondakindegia aprobetxatzen ziren, hondakinak Agruminsako instalazioetan garbitzeko. Matamoros Orconeraren garbitokia 1988ko otsailean itxi zen. Galdamesko meatokiak, 50eko hamarkadatik aurrera batik bat, kontratu txikien bidez ustiatzen ziren; bertan beharrean zebiltzan enpresa txikiok "atzera-egitera" egiten zuten lan, antzinako meatokietako hondakinak garbitoki txiki eta kamioiez aprobetxatuz. 80ko hamarkadaren amaierara arte eutsi zioten Berangoko ustiakuntzari -flotazio bidezko garbitokia zuen.

Azkenik, karbonatoaren legea baxua zenez eta minerala lur azpitik erauztea oso garestia zenez, beste meategiekiko lehia gero eta zailagoa zen. Agruminsak Bizkaiko Labe Garaiak hornitzen zituen, beraz, side-



rurgiaren krisialdia hasi zenean, eskualdeko azken meatokia (Bodovalle) ez zen erabilgarria. 1993an itxi zuten meatoki hori, eta mendez mende garatutako jarduerari eman zioten amaiera. Labe Garaiek pixka bat gehiago iraun zuten, 1996ra arte hain zuzen ere. Gaur egun, Acería Compacta de Bizkaia Sestaoko Labe Garaietako antzinako lurretan dago, eta altzairua ekoizten du, baina horretarako, ez du burdina erabiltzen, txatarra baino.

Meatzaritzari utzi eta gero, antzinako ustategiek betetako lurrak modu naturalean itzuli dira euren onera, eta jostetarako eremu garrantzitsu bilakatu dira. Ber moduan, bertan sortu den paisaiak berezko ezaugarriak ditu, eta gizakiak ingurumenean duen ikaragarritzko eragina eta meatzaritzak menderik mende Bizkaiko ekonomi garapenerako izan duen garrantzia ulertzeko eredu aparta da.

Xabier meategien ustiapenaren amaierara heldu zenean, Angeles ia lo zegoen. Gaueko hamarrak ziren eta arratsalde

osoan egon ziren iraganari buruz hitz egiten. Orduan, bere besoetan ohera eraman zuen, bertan bere oroitzapenekin lo egin ahal izateko.

Korridoretik zihoazen bitartean Agelesek esan zion bere ilobari:

- Zein gauza politak esan dizkidazu Xabi. Orain meategien ustiapenari buruzko xehetasun guztiak ezagutzen ditudala esan dezaket. Orain arte ez nituen ezagutzen, nahiz eta meatzari bezala lan egiten egon

- Bai, amama, orain guzti-guztia ezagutzen duzu. Orain atsedena hartzeko ordua da eta zure gaztaroaren oroitzapen horiekin amets egin.

- Horixe egingo dut - esan zuen Angelesek ahots mehearekin. Astiro itxi egin zituen begiak eta bururdian burua jarri



zuen.

Hurrengo egunean, hamaikak aldera, Xabier bere amama esnatzera joan zen. Gosaltzeko ordua zen eta arraroa egin zitzaion, ordua ikusita, oraindik esnatu ez izana.

Orduan, bere ehun urteko amama, azken emakume meatzaria, betiko joan zela konturatu zen.

Modu isil horretan, Angeles Luisekin joan zen, galdutako urteak berreskuratu ahal izateko. Urte horiek bere bizitza gogorrean izandako zoriontsuenak izan ziren.

Angelesen heriotzak Las Carreraseko auzoa zeharo hunkituta utzi zuen. Bere hileta egunean, Las Carreraseko eliza jendez gainezka zegoen. Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoak liburu bat dedikatu zion; bere bizitza eta berari zuzendua. Horrez gain, erakusmahaiko beira-arasetan tarte berezi bat du.







■ Angeles Las Carrerako Abantoarra auzoan bizi den meatzaria da. Ehun urte dituela, bere bizitza meategian nolakoa izan den gogoratzen du. Bere ilobak Angelesi esaten dio meatzariren bat ezagutu nahi duela meatzaritzaren xehetasun guztiak ezagutzeko. Gaur, jarduera honi buruz geratzen den gauza bakarra oroitzapenak dira. ■



ADEVE